# MUNGIA TA MUNGIARRAK

## MUNGIA SU TIERRA Y SUS HOMBRES




*Mungia erriaren ikurdia*

OLAZAR ETA URIBE'TAR MARTIN'EK

Lege Gordailua: BI-2541-00

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Flash Composition, S. L.
Alameda Recalde, 6 - 48009 BILBAO

# AURKEZPENA

Mungia'ko ta beste errietako irakurleok, ona emen zuen eskuetan Mungia erriaren edestia, istoria, erritar zeientzat egiña, ez jakitunentzat eta. au bai gura neukela. errez irakurteko era pozgarriz egiña.

Oraintsu irakurri dot. astitsu eta astiro, Juan Gutieirez Bilbao'k idatzi eban "Historia de Mungia" deritxon liburua. Liburu au idazleak 1933n. urtean idatzi eta oraintsuago Mungia'ko Udal Batzak argitaratu dau argazkiz. eta ez dago salgai. agortuta baiuo.

Liburu ederra da. edestiko jakingarriz ondo ornidua. baiña eragozpen bi daukaz: Erderaz dagoala eta irakurteko gatxa dala. astuna.

Ba-dakit beste mungiar batzuk gure erriaren edestia idazten clabiltza-na eta orrek poztu egiten nau. Gaiñera nik bajño askoz obeto egingo dabe edesti-lana. ni ez naz edestilaria (istoriadorea)-ta.

Nik Hburu o'negaz lortu nai dodana ez da besterik, irakurleentzar mungiarrentzat batez be. irakurgai errez eta pozgarria eskintzea baiño. Errez irakurteko eta erriaren edesti edo istoria'ko jakingarririk gurenak ikasteko izango dan liburua. Liburu laburra egin gura dot, baiña jakinga-rriak asko dira. Labur esan bcar!

Liburu au, oñarri lez euskeraz idazten dot, gure erriaren izkuntza eus-kerea dalako. baiña euskerea ez dakienentzat beti egingo dot laburpen bat.

Gaiñera. 1933n. urtetik ona gure errian gauza asko jazo dira eta oneik ez dagoz Gutierrez'en liburu ederrean. Lenagoko gauzelan be billaketa-lana egin da eta ba-dagoz ainbat gauza Gutierrez'ek ez dakazenak eta jakin-berrekoak.

Euskeraz dala liburu au esan dot. baiña nik erabilliko dodan euskerea 1968n. urtea baiño lenago erabilten zana da. gure erritan'ak darabillena bera. apur bat apainduta.

Irakurle! Arlu eta irakurri! Bizkai'koa ta Mungia'koa izateaz poztu egingo zara. Ederra da gure edeslia. isloria!.

**PRESENTACION: Lector! Te presento un libro sencillo, con base historica, pero mas facil para la lectura que el libro de Juan Gutierrez titulado "Historia de Mungia".**

**Se que hay otros que estan escribiendo la historia de Mungia. Sin duda, como historia, sera mejor que este libro y me alegro de ello. Yo te ofrezco un entretenimiento.**

**Encontraras en este libro algunos datos antiguos que no trae Gutierrez. Pocos. Son fruto de recientes investigaciones. Y datos que son posteriores al año 1933 en que se escribio aquel libro. Estos datos son mas cercanos a nosotros y muy interesantes.**

Munguia 2000-02-17
**Martin** Olazar Uribe

# I.- LUR-AZALAREN EDESTIA

Izadiak, eta sinistedun garanontzat Jainkoak, bizilekua gertatu dau gutzat, astiro, kontuz, millak milloien urteen joanean. Zortzi milla milloi urte inguru daukazela gure munduak esaten dabe jakitunak.

Zortzi milla milloi urte onein asieran uiñak (ondak) agertu ei ziran, batzuk baiezko tximist-indarragaz eta beste batzuk ezezkoagaz. Uin oneik moltzo ikaragarri bat osotzen eben, sinistu eziñeko neurria eukan bola bat ziran.

Baiezko ta ezezko indarrak alkar berotzen eben eta bola ori suzko biurtu zan eta sasoi bat eldu zanean lerketa (esplosiño) ikaragarri bat izan eban. Millaka zati egin zan eta zatiak inguruan zabaJdu ziran. Orrelan sortu ei ziran izarrak eta galaxiak. Gaur be oraindiño zabalketa ori amaitu barik ei dago. Mundu-zatiak zabaltzen doaz gaur be. Ain da aundia, neurri- bakoa, inguruko utsaren utsa!

Milloika zati orrein artean bat aukeratu eban Egilleak gutzat: Eguzkia. Eta eguzkiak be zati bat bota eban utsera: Lurta.

Lurra, asieran suzkoa zan dana eta eguzkiaren inguruan biraka ebillan eta eguzkia ta lurra batera bidez doaz, ez dakigu norantza. Eguzkiak eta lurrak bere buruari birak emoten dautsez tronpoi baten antzera. Biraka orretan lurrak be zati bat bota eban utsera eta orixe da iretargia.

Gure lur au, eguzkitik urrintxu egoan eta otzituten asi zan eta otz onek lurraren azala gogortu egin eban, sua barruan geratzen zala. Lurraren azala geroago ta sendoagoa biuitu zan eta gaiñean egozan lurrunak be ur biurtu ziran. Ona emen euria! Eurite aundiak! Eta ondoren lez itxasoak. Lurraren inguru guztia dana zan ura, itxasoa.

Baiña lurraren barruan sua egoan eta uraren azpitik sumendiak, bolkanak, agertzen dira eta orrelan uraren gaiñean mendiak agertu ziran.

Gure inguruan iru mendi moltzo aundi agertu ziran: Akitania'koak, Asturietekoak eta Ibairu-mendiak. Iru txuntxur orrein bitartean dana zan

itxasoa: Asi Kantauri'n eta Lur-arte edo Mediterran itxasora arte, dana zan itxasoa. Gure Bizkaia eta or bairuan gure Mungia, itxaspean egoan dana. Eta itxaso aundi ta zabal onek orrelan iraun eban, gitxi gorabera, 900 milloi urtean.

Itxaso orren azpian lurra sendotzen doa eta or sortu dira gaur ikusten doguzan lur-azalak edo kapak, batzuk sumendiak atera dabez eta beste batzuk lurraren gaiñean, itxaspean, sortu dira. Orrei lur-azalak edo estratoak esaten dautsegu. Aulobideen alboetan eta edonon ikusten dira eta jakitunak ba-dakie zenbat milloi urte daukezan.

Gure mendi-ganetan eta atx batzun baiTuan arraiñen gorpatz legortuak edo fosilak agiri dira. Mendi oiTeik itxaspean ainbeste urte egin ebelako da ori. 900 milloi urte orreitan iru mendibillak (Akitani, Asturi. Ibero) eta itxaspeko lurra ez dagoz geldi. Apurka- apurka eragiña dauke onelan: Iru mendibil orreik erdian dauken lur-azalari bultz egiten dautsoe eta lur-azalean tximurrak agertzen dira. Ulertzeko: Papeiak alkarren gaiñean dagozenean alboetatik sakatu ezkero izurrak egiten dabezan lez, olantxe lurrak be. Orrelan sortu ziran gure inguruko menditxuak. Jata, Sollube, Berriaga eta olakoak. Jata, esaterako, esan lei sumendi edo bolkan batek sortua dala, eta daukazan iru erpiñak sumendiaren agoak edo kraterrak dirudie.

Aldi baten alboko itxasoak be beeratu egin ziran, gure lurra alboko indarraz goratu eta orrelan agertu zan gu bizi garan lurralde au.




*Papelak-izitrrak*



*Mendiuk sonzen.*

Itxasoaren barruan, ez dakigu non, bizidu-na sortu ei zan, batzutan landarak sentimen barik eta beste batzutan, geroago, sentipen-dunak. Orra or munduan entzun zan lenengo aiena! Eta gero, milloiak urteen joanean, lurrera zabaldu ziran landarak eta piztiak, eta piztien ondoren, orain milloi bi urte, gizona ta emakumea. Dana doa aurrera ta aurrera, barruko indar batek eraginda eta eiburu bat dauala.

Milloi bi urte daroaguz ba munduan buru argidunak garanok. Zer dira miltoi bi urte. munduaren asieratik igaro diran zortzi milla milloi urteakaz konparatu ezkero? Ara: Mun-duaren joana dana, zortzi milla milloi urte. egun batera sartuko ba gendu. gizona bizi dan aldia, gabeko amabietako azken-kanpai-otsa baiño ez litzake izango.

## HISTORIA GEOLOGICA

**Tratemos, en primer lugar, de reñexionar sobre el origen de nuestro suelo, mirando la cosinogonia y la geologi'a.**

**Ocho mi) niillones de anos tiene de existencia el mundo: ondas con cargas positivas y negativas, enorme bola de fuego, explosion y dispersion en trozos que se sigue realizando. Uno de estos pedazos es el sol que a su vez lanza una parte suya que forma lo que sera la tierra y esta lanza a la orbita la luna.**

**Comienza la epoca del enfriamiento de la tierra y sobre el]a se condensa el vapor que da origen a las lluvias que a su vez hacen surgir los mares.**

**El fuego interno produce explosiones que hacen surgir algunas montañas sobre el agua. Surgen los montes de Aquitania, los de Asturias y los Ibericos. Entre estos tres macizos; esta el mar que une lo que hoy es el Cantabrico con el Mediterraneo. Nuestra tierra estuvo bajo el mar durante 900 millones de aftos.**

**Durante este largufsimo periodo la tierra bajo el mar se robustece, se van formando las capas que hoy vemos en las rocas y sobre estas la tierra fertil por**

sedimentacidn continua y en tantos millones de años. *Asi* se forman los estratos, algunos de origen volcanico. Asi se explica que nuestras rocas calizas esten formadas por cuerpos de peces y que sobre las montañas mas altas aparezcan fosiles de peces.

Durante esos 900 millones de años, la tierra tiene varios movimientos lentisimos: Los tres macizos indicados presionan a nuestro suelo hacia el centro, dando origen asi a pliegues que son nuestras colinas y montañas bajas como Jata, Sollube y Berriaga. Tambien el nivel del mar bajo mucho. Como resultado de todo, quedo al descubierto esta parte de la tierra en que vivimos.

Dentro de este larguisimo periodo en algun rincon de los mares aparecio un ser que se movia de por si, desde dentxo, mas tarde un ser que tuvo la primera sensacion de dolor y de ahi poco a poco, todo fue evolucionando hasta llegar al hombre.

*Dos millones* de años Ilevamos los hombres *y* las mujeres sobre la tierra. Poco tiempo. Veamoslo con una comparacion: Si toda la existencia del mundo creado la redujeramos a un dia, la existencia de la humanidad no ocuparia mas tiempo que la ultima campanada de la media noche.

# II.- LEIZETAKO GIZONA

Piztiz ugari biurtu zan lur-gaiñea. Aldi baten dinosaurioak. Oneik Errioxa'n astarrenak itzi dabez eta sinistekoa da emen be ibilliko zirala. Zugatzak ugari egozan eta zugatz-artean askotariko piztiak be bai.

Lurraren basterren baten primate esaten dautsenetarikoak bizi ziran. Guk tximinoiak esaten daiitsegunen motakoak ziran. Euren artean mota bat egoan makalena. Onek ez eukan bere burua zaintzeko almen aundirik eta beste piztiak aurrean erabilten eben. Orregaitik, baso baltzetik urten egin eban eta zelajetako landetara joan. Olako lekuetan, gizaldien joanean. bear-izanak eraginda, bere burua argitzea lortu eban. Lenengo oin biren gaiñean ibi.ten ikasi eban eskuakaz bere burua zaintzeko eta apur-apurka buruko argitasuna lortu eban, bere kideko beste piztiak ez eukena. Or asi zan biziera barria asmatzen eta orretan diardu gaur arte.

Milloi bi urte dirala, diñoe, lur-gaiñean gizona agertu zala edo primatea buru argidun biurtu zala. Ez uste izan, gero, ori bat batean jazo zanik. Millak urte asko igaro ziran orretarako.

Jazokizun ori ez zan jazo emen Bizkaja'n, edo Mungialdean. Ez dago beintzat oiñarririk ori baieztatzeko. Emendik ain urrin ez dagon Burgos'ko Atapuerka'n agerru dira gizonik zarren eta antxiñakoenaren astarrenak. Ez dago asago, ez dago urrin.

Orain berrogei bat milla urte dirala lur-gaiñean otzaldi aundi bat agertu zan, dana zan izotza, edurra ta leia, eta gizonak leiza edo kobetan artu eban bizilekua. Ogeita amar mjlla urte inguru iraun eban izotz edo leialdi orrek eta aldi orretan gure inguru onetan ibilli zan gizona, eizan eta arraintzan batez be, baiña orain artean ez dogu aurkitu astarrenik. Tñoz entzun dot Gamiz'ko Deskarga etxearen ondoan dagoala leiza edo koba oso sakon bat iñok aztertu barik. Ete dago or ezer? Beste inguruko atxzuloren baten edo orain lurperen baten?

Kro-magnon esaten jako gizon orreri eta ara zelan bizi zan. aurkitu diran ondakiñak difloenez: Bizitzearen [uzerea berrogei urtekoa zan eta geienak umetan ilten ziran, janariak eizan arrapatutako piztiak, arraintzan arrapatutako arraiñak eta landarak berez eskintzen ebezan igalealeak ziran, eizarako erarik onena tranpak ziran: piztien bidean zulo aundi bat egin eta zugatz abarrez estaldu. ara zulora jausten zan piztia eta an ilten eben arrika edo al eben eran eta gero etxera jateko, batez be bisonteak. Kro-magnon gizon onen gorpuzkiñak be aurkitu dira eta erabilten ebazan lanabesak be bai, batez be azurrezkoak,

Kro-magnon au margolari ona zan eta arrigarriak dira Kortezubiko Santimamiñe'n aurkitu diran marrazkiak,

Kromagnon gizonak izkuntza be ikasi eban. Asieran berba gitxikoa, baiña lanabesen izenak arria edo aitza gogoratzen dabe: aizkorea, aiztoa, aitxurra ta abar. Orduan sortua dala dirudi gure euskerea. Guk arei berba egiten euntzungo ba'geuskie, jakingo geuke euskeraz diarduena. baiña oso gaitxa litzake eurai uiertzea.

Ori izan zan ba eizarako inguru onetara etorten zan gizonaren bizierea berrogei bat milla urtean. Munduaren aurrerapena astiro doa benetan!



*Kobako marrazkia.*

## EL HOMBRE DE LAS CUEVAS

**Poblaban la superflcie de la tierra animales de toda espeeie, entre ellos los en otro tiempo famosos dinosaurios que dejaron abundantes vestigios en la Rioja.**

**En el correr de los *siglos* en algun lugar de Ja tierra vivian los Ilamados primates y entre estos una especie desprotegida e indefensa que al sufrir el acoso salio de la selva y comenzo a vivir en la sabana. Este primate durante siglos dio muestras de inteligencia y progreso: consiguio audar erguido y tener disponibles las manos para defensa, fue clarificando su meute y comenzo a progresar y en ello continua hoy. Es el hombre. Dicen que Ileva dos millones de años sobre la tierra.**

**Todo eso no ocurrio en Mungia, pero no esta tan lejos, en Burgos, Atapuerca donde se han hallado restos de hombres que vivieron hace mas de un millon de años.**

**Mas cerca tenemos las cuevas de Santimamiñe en Kortezubi, donde el hombre vivio hace 40. 000 años. Por aquellas fechas hubo una epoca larga de glaciacion y por eso el homhre vivia eu las cuevas: tenia unos 40 años de vida, se alimentaba de frutos, caza y pesca... Era el Kormagnon cuyos restos de comida, herramientas de hueso y piedra, y restos corporales se han encoivtrado en sus vertederos a la entrada de la cueva. Era pintor muy habil y en las paredes de la cuevas nos ha dejado sus obras de arte niagistrales.**

**Por esas fechas parece que aprendio el Kroinagñon a hablar y la lengua que hablaba parece ser un euskera, como lo dan a entender aun hoy los nombres de instrumentos que llevan atx o roca en su raiz: atxurra/azada, aizkora/acha, aiztoa/cuchillo... pero el euskera que hablaba, tan primitivo, hubiera sido difTcil de enteder para nosotros, aun identificandolo como euskera.**

**Esa era la vida y esas las obras del hombre del Kromagnon hace unos cuarenta mil años que en sus cacerias y busqueda de alimentos recorrio sin duda estas nuestras tierras.**

# III.- ARTZAIÑEN ALDIA

Milla batzuk urte, ogeta amar bat milla, egin ebazan len-euskaldun arek leiza edo kobetan bizi izaten; Eizatik ta arrantzatik eta kanpoko baso-igaleak jan, lanabesak arriz edo azurrez egin, kobako ormak margo ederrez margotu eta olako zeregiñetan.

Baiña millak urte luze orreik be amaitu egin ziran eta apurka-apurka otz aundia joan eta giro epelagoa *sortu* zan. Biziera barri bat artzeko aukerea len-euskaldun areintzat. Leiza edo kobetatik urten egin ziran eta zelaietan naiz basoetan bizi izaten asi.

Sasoi onetan, orain lau milia urte inguru, biblia'ko Abraan'en sasoia baiño pizka bat lenago, gizonak asmakizun aundi bat egin eban. Bear ba'da edesti edo istoria osoan izan danik iraultzarik aundiena: Piztiak eizan arrapau-bearrean abere biurtu. piztiak ezi eta etxean euki (latiñeko "habere")- Eta orrelan urteen joanean gizona artzain biurtu zan.

Zeintzuk pizti etxeratu, ezi? Errezen orretara makurtzen ziranak. Batzuk jateko, esalerako beikiak, txarriak, zaldia. ..Beste batzuk laguntzarako: Zaidia bera. beikiak be bai, txakurrak, katuak. Eta pizti txikiak: Oilloak, kui edo konejuak...

Izan ete zan aldi onelan. Kristo baiño bi milla urte edo geiago aurretik, emen Mungialdean artzain-girorik? Euskalerri osoan bosteun lekutan dagoz artzaiñen aldiko ezaugarriak (dolmen edo trikuarriak menhir'ak, cromlech'ak) baiña emen gure inguruan ez dago olakorik. Zergaitik ez? Bear ba'da gure mguruan mendi aundirik ez dagoalako eta artzaiñak, batez be udan, mendi aundietara igoten dira.

Baiña aztertu daigun arlzaiñen jokabidea. Artzaiñak ez euken etxerik, txabolelan bizi ziran, teillalu-bako bizilekuetan. Teillea jabetasunaren ezaugani da eta txabolak itzi egilen dira urrengo datorrenak artu dagizan. Ez dauke leillarik, ez danke jaberik.

Artzaiñak. gaiñera. geiago edo gilxiago. "'transhumancia" edo tokiz aldatzea egiten dabe. Emen be bai. Udan Gorbeian edo Ailzgorri'n larra-

tzen ebezan ardiak baiña an otz egiten ebanean, edurra egoanean, bealdeestara etorten ziran ardientzat larra-billa. Orain be jazoten da ori eta aldi aretan be ardiak zabal ibilliko ziran mungi-inguruko zelai eta mniñoetan. Beti ezagutu doguz emen gure inguruan artzain giputzak neguan, orregatik daukaguz ainbeste abizen edo apilledu giputz gure artean, artzaiñak emen bizilekua artu ebelako.

Eta aldi areik igaro ondoren, abere-azkuntzak garrantzi aundia izan dau Mungialdean. Gure baserriak irabazbide bi izan dauz batez be: Soloa ta abereak. Eta orain abereen arloan gagozen ezkero, ez dira ugari izan gure artean ardiak, baiña bai beiak. Lenago etxerako esnea emoten eben eta geroago. batez be guda ostean, asi giñan eznea saltzen. Etxe bakoitxean amar bei edo gitxiago egozan eta urtean txal bat edo bi saldu eikezan. orrelan etxeko gastuai erantzuteko eta apur bat dirua aurreratzeko. Gaiñera urtero egiten ziran etxean zeziña ta txarria, urterako janaria etxean enkiteko: zeziña edo okela zikua, lukainkak, pernilla... Orrez gaiñera beti izan dira baserrietan eun oillo edo gitxiago, eguneroko janaria diran arrautzak eta noizean bein oilasko bat eukiteko. Saldu be egiten ziran. Kanpotik "errekadu" edo mezuren bategaz etorten ziranai maian eskintzeko be, errez eskuratzen zau janaria ziran arrautzak eta lukainkak.




*Dolmemik. Mungia inguruan l?ai: Sopeiana'n. Geienak Gernika-atdean.*

Orra or nondik nora piztiak ezi eta abere biurtzeko, artzain izateko, asmakizuna euki eban antxiñako gizon arek bere ikutua izan eban gure eguneroko bizitzan.

## EPOCA DE LOS PASTORES

Unos treinta mil años paso aquel euskaldun primitivo en la cuevas escondiendose del frio, alimentandose de caza, pesca y frutos uaturales, labrando sus instrumentos rudimentarios de hueso y madera y pintando primorosamente las paredes de su casa-cueva.

Pero, poco a poco se fueron las nieves, heladas y frios y el hombre crornagnon pudo salir de sus cuevas y vivir en valles y colinas.

Por aquellas fechas el hombre realizo un invento, el mas revolucionario de su historia, domesticar animales para no tener que estar pendiente de la caza. ^Cuales? Los mas asequibles. Entre animales mayores, caballos, vacas, etc. y entre animales menores gallinas, conejos... Y tambien animales de compañia y defensa, como pcrros y gatos. Asi surgio el hombre pastor.

Hubo pastores en aquel tiempo en Mungialde? Ellos han dejado señales, como dolmenes, menhires y cromlech'es, pero de los 500 monumentos megaliticos que hay en Euskalerria, no conocemos ninguno por nuestras tierras. Quiza sea porque por aqui no tenemos montes altos como el Gorbea y el Aitzgorri. El pastor. sobre todo en verano, neces/ta para pastos los montes altos.

Pero los pastores suelen ser transhumantes. Viven durante el verano en un sitio alto y fresco y en invierno bajan a zonas templadas. Por eso no tienen casas con tejado sino txabolas sin teja. La teja cs señal de propiedad y el Pastor no es amo de la txabola. La deja libre para el siguiente que la ocupe. Tambien hoy suelen venir a esta tierra en invierno pastores guipuzcoanos. Hasta dejan aqui sus apellidos. De todas formas la oveja, que ahora va en aumento, no ha sido muy tradicional entre nosotros.

Pasados aquellos primeros tienipos, el invento de domesticar animales ha tenido enorme transccndencia en nuestra economia, especialmente el ganado vacuno que ha proporcionado al labrador leche para casa, terncras para alimento y animales para trabajar el campo. Asi se ha auto-abastecido el caserio con leche, carne cecina, embutidos de cerdo y jamon tratado. Desde la guerra se ha buscado la venta de leche y terneras, aunque de siempre se conocen las grandes ferias de cerdo (Arrigorriaga, Arceniega (Intziñe) y de vacas (Mungia, Basurto, Santander, Vitoria). Y hablando de ganaderia no podemos olvidar el ganado menor como las gallinas y los conejos.

He ahi como nos ha condicionado hasta hoy el invento del pastoreo realizado por aquel hombre tan antiguo.

# IV.- NEKAZARITZA TA BURDIN-AROA

Aurreko atalean esan dogun lez, garrantzi aundikoa izan zan piztiak abere biurtzea edo piztien eziketa. Baiña garrantzi aundia dauka, baita, lurraren emoitzak edo frutuak, berez datozenak artuta bizi barik, bizilekuaren ondoko soloan ernoitz orreik norberak lortzea. Orixe da nekazaritza edo lugintza edo baserriko lana.

Gure artean, Mungialde'n be bai, zarra da nekezaritza. Ezin urterik izendatu. Baiña bai erromatarren denporan, Kristo jaio baiño lenagotik indar aundia artu ebala. Ori baieztatzeko kontuan artu daiguzan gure euskeran daukaguzan eta erromatarren izkuntzatik, latiñetik, . artuak diran ortuarien eta zugatzen izenak: Baba, porru, kipula, keriza, pago eta olakoak. Gure "laia"ren ordez, areak-eta etorri ziran.

Baiña nekazaritzak indarra artu baiño lenago indartu zan gure artean burdin-lana.

Kristo baiño 1000 urte lenago asi zan gizona burdiñea ta metalak lantzen. Bibliaren parean ipiñi ezkero, Salomon'en aldi inguruan. Eta guk Kristo'ren osteko 400n. urtean ipiñiko dautsagu azkena aldi oneri, gero esango dogun lez Gerekiz (Morga)'ko arria idatzi arte.

Nondik jakin geinke milla ta lareun urte oneitan Mungia'n eta inguruan zer egoan? Ez daukagu beste biderik aldi orretan egiñak diran lanabesak. aizkorak esaterako, aztertzea baiño. Olako lanabesak ugari aurkitu dirala Mungia'tik Bilbao'rantza, Berriaga inguruan. entzun dot nik beti, baiña ez dakit noiz eta zertzuk aurkitu diran. Gure billatzaille jakitunak erri bakoitxari bertan aurkitu diranen barri bereizia emon bear leuskie eta ez itzi barri orreik jakitunen eskuetara eltzen diran aldizkarietan. Dana dala emendik aurrera Mungia'ren edestia edo istoriaedesteko garrantzi aundikoa izango dogu Berriaga-gana.

Erromatarrak arin artzen eben usaiña meatzak non dagozen jakiteko eta orreik egozan lekuetara egiten ebezan bideak. Tokirik ezaguneak eta erromatarren bizi-leku izan ziranak Oiartzun eta Somorrostro dira. Somorros-

tro-inguruan mendi bat burdin utsezkoa zala diño idazle erromararrak. Triano mendia ete dan. Eta Mungia'n? Izango ziran erromatarren bideak. baiña bat oraindiño osoan galdu barik, Birle'tik itxasorantza doala diñoe. Ez dot nik ikusi baiña nai neuke ainbat lasterren aztertu. Birle izango da Mungia'ren edestian garrantzi aundikoa dan besle leku bat.

Dana daJa Kristo'ren denporatik la.ster biurtu ziran eu.skaldunak burdin-langille trebe. Ori baiezteko aztertu daiguzan olak eta errementariak.

Olea da burdiñea meatzetik atera eta gero erramentarietan lanabesak eta olakoak egiteko euskaldunen lantegia: ortik sortu dira toki-izen eta abizen^sko: Olalde. Olaburu, Olabarri, Olazar, Olarte, Olabeaga, Goikolea eta abar. Ainbeste toki-izen izateak berak diñosku lan ori ugaria izan dala gure artean.

Asieran olea mendian egiten zan eta aizearen indarragaz baliatzen ziran mailluak-eta erabilteko. Inguruan egurra egoan ugari sua egiteko. Gero olak aldapan egiten ziran menditik etorren uraren indarra artzeko. Oneik ziran zear-olak. Azkenean mendi-barrenean egin ziran, uraren indarra obeto artzeko.

Bizkaia'n beti izan dira 300 burdin-ola inguru. Gipuzkoan eta Araba n beste ainbeste. NapaiToa'n be asko. Bizkaia'n olagizonik geien euken erriak Ubidea ta Otxandiano izan ziran.

Bizkai'ko burdiñea oso ospetsua izan zan Europa osoan eta asko saltzen zan. Apurka-apurka galtzen joan ziran emeretzigarren gizaldia ezkero eta Laba Aundiak sortu ziranean, zearo galdu ziran, gizaldi orren azkenerantza. Meatza inguruan ez egoanean Somorrostro'tik ekarten zan burdietan idiakaz. Lan zabala zan burdidunena.

Eta zer egin zan ola orreikaz lana amaitu jakenean? Batzuk betiko galdu ziran baiña geienak errota biurtu ziran, olazarrakaz errota barriak egin ziran.

Mungialdean be ba-ziran olagizonak (or daukagu Olalde ezaugarri lez) eta gaur errota diran etxeak, naizta errotarik geienak geldi egon zeozeri itxaroten). Oka ibaiak Mungia'ri izena emon dautsola difioe. Izen ori Munegia izango zan asieran. Baiña bai olak eta errotak aberastasun aundia emon eutsoela. Gogoratu, Ipintxe, Aizene, Torrea, Olalde, Latxaga, Trobikorta eta abar. Orreik eta geiago izango ziran gure burdin-olak.

Eta milla ta lareun urte onetan ba-dago Mungia'n eta inguruan gomutakirik? Batzuk bai. Nire ustez zarrena Fruniz'en dagoan am irairi eta markadun bat da, estela edo illarri bat. Tiberio'ren aldikoa da, Kristo baiño 100 urte lenagokoa. Beste arri bat egoan Morga'n, Gerekiz gane-

ko San Estebaiven baseleizan. Gaur Bilbao'ko Eleizbarrutiaren Museoan dago eta idazki au dauka: "Aesemproniae conjugi suae posuet memorian. Cons CCCC". Konsulen aldi ori gure urte zenbaketagaz batera antzean doa eta lareungarren urte ingurukoa da.

Eztabaidan dago arri kristiñaua ete dan. "memoria" itz ori kristiñauena be izaten zalako. Ez da gauza ziurra.

Atal au amaitu orduko beste itaun bat: Noiz etorri zan ona, Mungia'ra, kristiñauen fedea? Noiz esan zan emen lenengoz "Ajta Gurea"?, Iñok ez daki. baiña nik uste 400n urte inguruan izango zala. Jakiña. oraindiño guztiak ez ziran izango kristiñauak.



*Olagizona.*

## AGRICULTURA E INDUSTRIA DEL HIERRO Y METALES

**Gran invento fue, lo hemos dicho, la ganaderfa, pero no fue mucho menor la agricultura: En vez de recoger frutos espontaneos en el campo, cultivarlos cerca de casa.**

**Aun pudiendo afirmar que !a agricultura siempre ha sido muy importante en la historia de Mungia, no podemos aventurar la fecha de su comienzo. Debio de tomar mayor importancia en tiempo de los romanos porque abundan**

nombres de plantas y arboles tomados del latin, incluso de instrumentos de labranza que suplantaron a la tradicional "laia".

Pero casi simultaneamente con la agricultura surgio entre nosotros la industria del hierro.

Mil años antes de Cristo empezo la era del hierro y de los metales. aproximadamente algo antes de Salomon en la Biblia. Nosotros pondreinos el final de esta era el año 400 despues de Cristo.

^Como podremos saber lo que hubo en Mungia durante estos 1. 400 años? El unico camino son los restos, especialmente instrumentos de trabajo, que dicen que aparecen con frecuencia entre Mungia y Bilbao. Desgraciadamente ni nos enteramos de estos hallazgos. EI monte Berriaga va a ser punto frecuente de referencia en la historia de nuestro pueblo.

Los romanos eran habiles en buscar minas de hierro y metales. Ahi tenemos Oyarzun y Somorrostro donde intervinieron a fondo. De Somorrostro dice un escritor romano qne hay alli un monte de hierro puro. Parece que se refiere a Triano.

En los lugares donde habia minas los romanos constrnian calzadas. He oido que existe una calzada romana, aunque hoy muy deteriorada, en Villela, hacia el mar. Algun dia habra que averiguarlo y tratar de conservarlo como recuerdo historieo. De todos modos Villela va a ser el segundo punto de referencia mas importante para la bistoria de nuestro pueblo.

Parece que poco despues del nacimiento de Cristo entro a Euskalherria la indnstria del hierro y llego a haber mas 1.000 las herrerias que vendian hierro, herramientas y armas, a casi toda Europa.

Hay muchisimos toponimos que delatan existencia de ferrerias: Olalde, Olabarri, Olaburu, Olazar, Olabeaga...

Las ferrerias comenzaron su existencia en las cumbres, aprovechando la fuerza del viento, luego bajaron a las laderas para ser zearrolas y mas tarde al valle para aprovechar mejor los saltos de agua.

Las ferrerias desaparecieron cuando se crearon los Altos Hornos y muchas se convirtieron en molinos.

En Mungia bay varios moljnos que, posiblemente, fueron ferrerias: Ipintxe, Aizene, Torrea, Olalde, Latxaga, Trobikorta...

De estos mil cuatrocientos años tenemos monumentos en nuestro entorno. Vamos a reeordarlos: El mas antiguo es una estela funeraria de Fruniz que es de la epoca de Tiberio, 100 años autes de Cristo. Hubo en Gerekiz (Morga) un piedra con inseripcion que ahora esta en el Museo Diocesano de Bilbao. Esta es la inscripcion: "Aesemproniae conjugi suae posuet memoriam. CONS CCCC".. Es tambien estela funeraria y se discute si es cristiana por la palabra "memoria".

Terminemos este capitulo con una interesante pregunta: ^Cuando Ilego el cristianismo a Mungia?^Cuando se rezo aqui por vez primera el "GURE AITA"? Apenas hay datos, pero supongo que hacia el año 400. Eso no quiere decir que por esas fechas la mayoria fueran cristianos,

# V.- BILLELA SENDIA

Lareungarren urte ingurukoa dan Gerekiz (Morga)'ko arri idatziaren ondoren, ainbat gomutaki daukaguz Mungia-inguruan zortzigarren gizaldiaren aurretik: Jainko'n gaur oteundegi edo Sagrarioaren azpian dagoan illarria. Fruiz'ko eleizearen ormetan dagozan arri landu bi lenago illobiren baten tinpanukoak izanak, Meñakabarreneko baseleizan dagozanak. Emerando'ko Santa Elena'n, gaur altarapean. dagoan illarria Llona'ko Madalena'n eta San Anton Belako'ko baseleiza bisigotiko tankerako leio bi, VII gizaldikoak... Gizaldi orreitan Mungia'n eta inguruetan ba-dabil jentea ugari.

Urte orreitatik lasterasten da aide nagusi (parientes mayores)'en aldi luzea. Aide Nagusiak garrantzi aundia dauke gure edestian. istorian, gero agertuko dogun lez, eta garrantzi orren adierazpen lez, Billela sendiaren edeslia agerluko dogu lenengo.

Nondik ete dator sendi mungiar onek daukon "Villela'" izena? Nik Palentzia'n, bide-ertzean. ikusi dot izen ori daroan erritxu bat. Andik ete dator sendi au? Berbca bera erdel-berbea da eta uri txikia esan nai dau.

Garrantzi aundia dauka Mungia'ren edestian sendi onek. baiña ez aiztu Biilela'gaz dabiltzala sendi onen menpean cgozan eta ez egozan. mungiar asko, bakean eta batez be gudaketan. Garrantzia dauko, gaiñera, zergak eskuratzen dauzalako. Mungia. Larrauri. Meñaka. Gatika ta Laukariz'ko eleizai dagokiezan amarrenak sendi orrek eskuratu ebazalako eta gero eleizak konpontzeko eukan ardurea ez ebalako beteten. Ori eleiza guztietan. baiña batez Laukariz'koan jazoten zala agirietan agiri da.

Billela tarrak Mungia'ren istoria edo edesti osoan nunnai agertzen dira. Agertze guzliak ez dodaz gogoratuko. Eziña litzake.Baiña bai idatzita datiozan ainbat, egoerea ulertzeko.

Berriaga mendian Bartolome deunaren baselaiza bat egoan antxiña-tik. Orain ondakiñen batzuk baiño ez dira geratzen. Antxe agertu zan eta edestilari ospetsuak ikusi dabe illarri bat. Gaur ez da iñon agiri arri au. Eta arri orrek idazki au dauka latiñez: "Emen datza Billela Jesukristo'ren mirabea CXV aldian il zana" Aldi orrekesan nai dau idazki ori 77n. urte-koa dala. Tzena beste batzuk "Belilla" irakurten dabe eta "Isabellila" laburtua dala diñoe, baiña argi dago "Villela" dala. Benetakoa ete da Santa ori? Ez.Urte orretan Barri Ona ezelan be ez zan elduta egon Mun-gialdera. Arri ori guzurrezkoa dala, BileJa sendiak asmaurikoa dala diñoe gaur jakitunak.

Dana dala, Labaym'k berak diñoan lez Billela sendia Bizkai guztian sendirik zarrenetarikoa da aide nagusien arrean.

BiJleJa sendi edo etxe onek Torre bat eukan gaur Mungia'n Bjjlela izena daukan auzoan eta ondoan eukan baseleiza bat ermitaño bategaz eta sendi onek egin eban San Pedro izena eroian lenengo eleizatxua. Au be baseleiza-antzekoa izango zan. Gero urrengo gizaldietan eldu da gaurko eleiz aundia izatera. Orregaitik eskuratzen ebazan Billela sendiak San Pedro'ko amarrenik geienak

Berriaga'ko baseleiza aretatik sortu zan Laukeriz'ko eleizea eta an Billela'k agintzen eban lez, Laukariz'ko amarrenak be bereak zituan.

1053n. urtean agertzen da Santxo Garzeiz de Billela agiri baten: Gaz-telugatxe'ko eleizea Kukulla'ko San Millan lekaide-etxeari eskintzen jako eta Billela'k izenpetzen dau fidatzaille Lez.

I 145n. urtean agertzen dira agirietan Pedro Sanlxez de Villela eta Juan Perez de Villela. Azkenengo onek egin eban emen Mungia'n zan lenengo Villela Tcrrea. Juan Villela au Gibraltar'en il zan .

Pedro Ortiz de VilJela'k gudan lagundu eutson, mungiarrakaz, XI Alfontso ri Aljeziras artzen.

Otxoa Lopez de Villela'k gudaldia egin eban Pedro el Cruel'egaz.

XIII la XIV gizaldietan nonnai agertzen da billelataiTen bat. Sendj ospetsua zan Mungia'ko sendi au.

1369n. urtean, Billela'n azken naia izenpetu eban Juan Saez de Ville-la'k eta au il zanean Mungia'ko Kepa Deunaren eleizan lurperatu eben, Baiña gure eleiza onetan korupean dagozan illobiak lenagokoak dira. millagarren urtea baiño lenagokoak. Antza dagoanez an illobiralzen ziran sendi orretakoak bat baiño geiago,

1393n. urtean il zan Larrauñ'n Billela'tarren torreko semea ta 7n. jauna zan Billeiatarra.

I424n. urteko agiri batek diño torrearen inguruan diran errotak, olak edo errementartiak Gatika'ko eleizea eta ToiTontegi olea billelatarrenak dirala.

1438n. urtean Juan Sanchez de Villela Mungia'ko alkate lez agertzen da eta onen anaia, Fortun Sanchez de Villela, Enrike TV'gaz dabil gudaketan. Geroago laguntza bardiña emoten dautse Errege Katolikuai.

Pedro de Villela (Villela Torre-Etxeko XIT jauna) Bermeo'n ibilli zan inglesen aurkako gudan Tzaro erre zanean.

1630n. urtean Pedro de Villela Conde de Lences biurtzen da eta Frantzia'n gudan ibilli ondoren Laredo uria erre eban. Gero 1.500 gudariren aurrean Algorta'n egin gudaldi bat,

I638n. urtean Ondarrabi inguratu eban.

1669n. urtean, Joakin Alfonso de Villela erriko ta eleizako legedia ikasi ondoren batxiller agiridun gertatu zan. Urte orreitan Frantzisko de Villela Zizter'eko lekaideen artera sartu zan.

I696n. urtean Antonio ezkondu egin zan eta alargun geratu zanean abade egin. Toledo'ko Kardinala zan Portocarrero'k kanonigu izatea eskiñi eutson baiña ez eban onartu. 1704n. urtean il zan.

Juan de Villela da sendi onetan ospetsuenetariko bat: "Indietarako Errege-Kontzeillukoa zan, Gaztela'ko Kontzeillukoa be bai eta Flandes'en Auditor edo entzule izan zan.

Orra or Aide Nagusiak deritxen sendietariko baten bizitzako gorabera batzuk. Ez da aiztu bear beti eurakaz, gudan naiz bakean, mungiarrak ibilten zirala. Gorrotagarri biurtzen jaku, benetan, jauntxu onein jokabLdea eta erbestekoakaz dauken artu-emon aundia.

Amaitzeko. Billela'tarren ikurdian agertzen dan olerki bat:

Sendi zarra ta zoriontsua naz
Ez dago leiñargi aundiagorik.
iñok ez bei e.san geiago danik.

• • •

Soy tan antiguo y dichoso,
no hay linaje tan altivo,
que pueda deeir es mas.

Sendi onek bere menpean eukazan Uribe-errialdeko alkate guztiak eta Mungia eta Plentzia'ren artean asarreak izan ziranean. beti joaten zan burrukara aurrerengo Billela'tarren bat. Mungia urian egozan 52 subetetik edo etxeetatik 14 ziran sendi onen jabetzakoak.

Billelatarren bizilekua euren izeneko Birle auzoan egoan torrea zan, asieratik eta millagarren urte ingurura arte. Or inguruan egin eben Mungia'ko Billela torre zarra. Au jausi egin zan eta aldi orretakorik ez dauko ezer bidezabal aldeko ormea ta leioak baiño. Gero sarritan izan da barriztatua eta beti oso txarto. Lences'ko Kondeak artu eban sendi onen ondorena eta Cancelada'ko Kondeak urrengo. Gaur orrein esku dago titulo ori.



*Torre ViUela. Aurretik Birlle'n egoan. I200n. urlc inguruan cgin zan Mungia'koa. Sarriian barrizlau da eta ez. oudo. Arguzkia atzeko aldclik artua da. Pitnitt-erdiko arkitak ete dtra lenengoak?*

## LA CASA DE LOS VILLELA

Despues de la estela funeraria de Gerekiz (Morga), año 400 mas o menos, son monumentos dignos de mencion la estela o crismon de Jainko (hoy es pie de sagrario), dos restos de timpauo en las paredes de la iglesia de Fruniz, algiinas piedras talladas de Meñakabarrena, una piedra bellamente labrada en la ermita de la Magdalena de Mungia, y otra en San Anton ambas del estilo visigotico, siglo VII, son ventanales, una estela en la ermita de la Magdalena de Emerando y seis crismones de la Ermita de San Bartolome de Berriaga, hoy en el Museo diocesano. Por aquelIos dias habria movimiento en Mungia y aledaños.

Por esas fechas, o algo antes comienzan a existir los parientes mayores a los que dedicaremos el capitulo siguiente. Hablemos aqui de la fainilia de Villela como modelo de parientes mayores y por ser el que mas importancia ha tenido en Mungia.

Hay un pueblecito en Paleneia, junto a la carretera antigua, que lleva este noinbre. <,Procederian de alli los Villela? EI apellido es castellano y signifiea villa pequeña.

Hc aqui algunos bechos de esta familia:

Cobraban como patronos casi todos los diezmos de Mungia, Laukariz, Meñaka, Gatika y Larrauri

- Hahia quejas de que no arreglaban las iglesias, sobre todo en Laukariz.
- Se inventaron una santa que habia sido criada dc Jesucristo y vivia en San Bartolome de Berriaga. Hay una lapida con inscripcion del año 77.

Vivieron hasta el año 1200 en su torre del Barrio Villela. Por esas f'echas paso a vivir en la nueva torre de Mungia. Esta torre fue destruida y varias veccs mal reconstruida. Queda la pared hacia la carretera.

- 1053: Firma de Villela en San Millan de la Cogolla sobre Gastelugatxe.
- 1145: Muere un Villela en Gibraltar en guerra. Aparece otro lucliando con Alfonso XI en Algeciras. Otro aparece luchando con Pedro el Cruel.
- 1369: Juan Saez de Villela en testamento pide ser enterrado en San Pedro de Mungia. Lo.s sepukros que hay bajo el coro son del año 1. 000,
- 1393: Muere en Larrauri guerreando el 7." scñor de Villela.
- 1424: Villela reconoce ser dueño de molinos y ferrerias en el barrioBillela, de Ia Iglesia dc Gatika y de la ferreria de Torrontegi,
- 1438: Juan Sancbez de Villela es alcalde de Mungia y su hermano Fortun lucha junto a Enrique IV. Mas tarde con los Reyes Catoltcos.

Pedro Villela, decimo señor de la casa. lucha en Bermeo contra los ingleses cuando sc quemo Izaro.

- 1630: Pedro Villela se convierte de Conde de Lences: Luch6 en Francia y quemo Laredo-. Lucho en Algorta con 1500 soldados.

- 1639: Joaquin Alfonso de Villela estudia Derecho Civil y candnico y es bachiller. Este mismo año Francisco de Villela entra monje del Cister.

- 1696: Antonio de Villela, siendo viudo, se ordeno sacerdote. El Cardenal de Toledo Portocarrero le ofrece una canonjia pero renuncia.

Juan de Villela, el mas famoso de la familia, es miembro del
Consejo Real de las Indias, del Consejo de Castilla y Auditor de Flandes.

La familia era dueña de 14 caserios, de los 52 que tenia la villa.

# VI.- AIDE NAGUSIAK

Mungia'ren edestia ulertzeko bear-bearreko gauzea da aide nagusien barriak jakitea. Larregi zeaztu barik, berez aspergarri dirata. Aurreko atal osoa eskiñi dautsagu Billela Etxeari edo sendiari, berau dalako garrantzirik geien daukana, eta orain beste atal baten sartuko doguz M'ungia'gaz zer-ikusia dauken beste Aide Nagusiak.

## Butron etxea

XI gizaldiaren asieran agertzen da etxe au, Gatika'ko eleizeagaz batera, eta etxe au da Billela'tarren areriorik aundiena la sendoena, naizta noizean bein ezkontzaz aikartuta agertu.

Toki askotara joan ziran sendi onetakoak gudak egilera, Billela'tarren antzera, baiña ez doguz toki orreik gogoratuko.

Gatika'n zan Butroi'ko torrea egin eben gaurkoa dagoan leku beratan, Torre edo etxe sendo ori jausi egin zan eta Torrezilla'ko Markesak agindu eutson Cubas'eko etxegiñari torre barria egiteko. Etxegin onek ez ebazan artu eredu lez emengo torre ta etxe sendoak, Europa'ko feudalen torreak baiño. Orregaitik torre eder onek ez dauko lengoaren edo gaurko gure torreen antzik be.

## Muxika etxea

Etxe onek be ba-dauka zer-ikusia Mungia'gaz, Butroi etxekoakaz lagun zalako eta emengo gudaldi ugarietara sartu zalako.

1425n. urtean Muxika'ko Juan Alonso Lekaide Frantzisko'tar egin zan.

I446n. urtean Billetarrakaz ezkontza bat izan eben,

Etxe onetakoa dan Muxika'ko Juan Aionso V Karlos'en enbaxadore izan zan Portugal'en,

Aramaio'ko jaunak izatera eldu ziran,

Mungia'ko gudaldian, Larrauri'n, tarteko izan zan.

## Abendaño etxea

Oneik jatorriz arabarrak ziran, baiña asko sartu ziran emen.

Lenengo agertzen dana Abendaño'ko Martin Ruiz da, Arratia n da Urkixu'ko jauna.

Baiña Abendaño'tarrik ospetsuena Juan izan zan: Ospe aundikoa baiña arroa, ankerra, eztabaida-zalea. Tello Bizkai'ko jaunak il eban Bilbao'n, I356n. urtean.

San Juan Gaztelugatxe'n jaioa zan, Billlareal (Leguciano)'ko jauna eta Mai'tin onen semea Antekera'n il zan 1410n. urtean. Juan onen semea Arratia'ko maiorino izan zan,

Abendaño'ko Pedro izan zan Mungia'ko gudaldian arteko izan zana. Trebiño'ko kondeagaz batera eta Haro'ko Kondearen aurka,

## Meñaka'ko etxea

Meñakabarrenen antxiñakoa da jauregia edo torrea edo etxe sendoa eta etxe orretako jaunak ospetsuak izan dira. Ba-diñoe 898n. urtean egin ebala etxe ori Minxaka eritxon kapitai batek. Askok ez dabe sinisten,

1437n, urtean gorabera aundi bat zan Mungia ko Berteiz'en; Butroi'tar batek etxea egin nai izan eban eta Billelatarrak ez eutsoen izten. Gudaldi gogor bat sortu zan baiña Butroi'tairak ez eben lortu etxe ori egitea, Meñaka'tarrak Billela'koai lagundu eutselako,

Meñaka'ko parrokia ez da etxe onek egiña edo babestua. Iru baseleizetan batzen ziran fededunak (Meñakabarrena, Mesterika ta Santa Elena) Leon X aita Santuaren bairnena eskatuta egin eben eleizea.l516'koa da balmena, baiña geroago egin zan.

## Trebiño etxea

Auxe da Mungia'ko gudaldira geien sartu zana. Auxe Aro'ko Kondeari erabazi eulsona. Pedro Manrike zan Trcbiño-etxeko gizona, loclia ta indartsua. eta Carrion de los Condes'era erbesteratu eban erregeak. Haro'ko Kondeak eskaluta. Orregaitik gogoz etorri zan andik, Mungia'ko gudaldia irabazteko.

XV gizaldian artu eban Trebiño'ko Konde izena eta geroago Naxera'ko Duke egm eben,

1475n. urtean Erregc Katolikuak laguntza ebezalako, Bizkai ko diruzain nasusi izendatu eben

## Aro'ko kondearen etxea



Jatorriz oso antxiñakoa da etxe au. 866n, urtean agertzen da Zeno eta oneri batzuk Bizkai'ko lenengo jauna esaten dautsoe. Onen lengusua Eylo Araba'ko jaurlaria tzan zan. Biak jagi ziran Leon'ko eiTegearen aurka eta Obiedo'n azpiratu ebezan. 11 be antxe il ziran. Zeno'k alaba bi itzi ei ebazan, bata Toda lñigo Arricza'ren ernaztea eta bestea lñiga (Momna) Lopez Zuria. Au izan zala diñoe Jaun Zuria, Bizkai'ko lenengo jaunaren sendia. Ezkozia'gaz artu emonak izan ebazan eta Arrigorriaga'ko gudaldia icabazi eban.

107 ln. urtean Iñigo Lopez Lenengo Bizkai ko Jauna.

1300n. urtean Aro'ko Diego Lopez'ek Bilbao irasi, fundau eban.

Aroko kondeak galdu eban mungiako gudaldia.

## LOS PARIENTES MAYORES

**Es muy intcresante para entender la historia de Mungia el tratar de conocer la vida y los hechos de Jos parientes mayores, como lo hemos becho con Villela, pero el tema resulta arido y vamos a tratar de presentar un brevisimo resumen.**

**La Casa de Butron es el rival principal de la de Villela y va unido su origen y su devenir con el la iglesia de Gatika. En este pueblo esta la casa torre de Butron que sucede a la antigua casa fuerte y ha sido reconstrnida el siglo pasado por el heredero Marques de Torrecilla, valiendose del arquitecto Cubas. La**

reconstruccion en vez de adecuarse al uso de nuestros castillos ha acudido a los modelos de castillos feudales centroeuropeos, de donde resulta que carece del sabor de la vida y usos de los Butrones.

La casa de Miigica aparece aquipor sus relaciones belicas y sociales con los *Burtron. Ya en* 1445 encontramos a un Mugika convertido en religioso franciscano y en 1446 aparecen unidos en matrimonio con los Villela. Juan Alonso fue embajador de Carlos V en Portugal. Vemos a esta casa muy unida al condado de Aramayona pero se hace presente en la Batalla de Mungia.

La casa de Abendaño, oriunda de Alava, se hizo muy presente en Arratia, escudandose en la casa-torre de Urkizu. El mas famoso de los Abendaños fue Juan, reconocido por su gran fama, por su crueldad, por su arrogancia y su afan de busear y crear lios. El Señor de Bizkaia D. Tello lo mato en Bilbao en 1356. Otro vastago, Juan de Juan, nacido en San Juan de Gaztelugatxe fue Conde de Villareal (Legutiano) y el hijo de este, llamado Martin, lucho en Antequera *en* 1410. Y el hijo de este, Juan tambien, aparece como *meriuo* de Arratia, Fue Pedro de Abendaño el que intervino en la batalla de Mungia junto al Conde de Treviño y contra el Conde de Haro al que derrotaron.

La casa de Meñaka tiene origenes un poco mitoiogieos el año 898 en una torre construida cn Meñakabarrena por el capitan Minxaka. Tuvo un encuentro fuerte en Berteiz de Mungia cuando uno de los Butrones quiso construir una casa y se lo impedia un Villela. Ayudaron a estos ultimos y salieron victoriosos. No tuvieron nada que ver con el origen de la iglesia de Meñaka que fue construida por autorizacion del papa Leon X a las ermitas de Meñakabarrena, Mesterika y Santa Elena de Emerando. La autorjzacion es de 1516, pero la construccidn se retrasd.

La casa de Treviño fue el principal luchador en la batalla de Mungia. Era Pedro Manrique el que la representaba, hombre grueso y fuerte, que vino del destierro real provocado en Carrion de los Condes por los de Haro. En el siglo XV heredo el condado de Treviño y despues el ducado de Najera. El año 1475 los Reyes Catolicos en premio a sus grandes servicios le hicieron tesorero mayor de Bizkaia.

La casa de los condes de Haro es muy antigua. En esta familia aparece en 866 Zeno a quien algunos llaman primer señor de Bizkaia. Su primo EIo goberno Alava. Ambos se rebelaron contra el Rey de Leon y fuerou vencidos en Oviedo *y alli murieron.* Zeno dejd dos hijas, la primera, Toda, *esvosa de* Iñigo Aritza en Nabarra y la segunda Iñiga (Monina) Lopez de Zuria de cuya familia se dice que fue Jaun Zuria, relacionado con Escocia y vencedor en la famosa batalla de Arrigorriaga. En 1071 Iñigo Lopez el es primer señor deBizkaia reconocido como tal y el 1300 Diego Lopez de Haro fundo Bilbao. Uno de los Condes de Haro fue el perdedor en la batalla de Mungia.

# VII.- MUNGIA'KO GUDALDIA

Aurreko atal bietan apur bat ikusi al izan dan lez, XV gizaldian Mungia'ko erri zeia zapalduta eta zapuztuta egoan, aide nagusiak beti alkarregaz burrukan ebiltzalako eta errilar askok euren atzean ibilli bear izaten eben, sendiak eta lanak alde batera itzita.Eta zenbat alperreko eriotza eta negar. 1468n. urtean eldu zan gorengo maillara egoera larri au.

Asarreen asierea len esan dogun Berteiz'ko etxe barriaren arazoa izan ei zan.

Enrike Gaztela'ko erregea Burgos'en egoan eta ara joan zan Aro'ko Kondea. Erregeak omen aundiz artu eban eta zeregin aundi bat emon eutson: 1469n. urtearen urril edo azillean errege-orde edo Virrey lez Bizkai'ra etorri eta emengo lapurrak eta gaizkilleak kentzeko.

Errege-orde bat izendatzea gure lege zarren aurka egoan, lendik egoalako ernen korrexidorea. Gaiñera Haro'ko Kondea arroputza zan, ankerra. Ganboa'tarren aldekoa eta onantza etorri zanean, Legutiano'n, Otxandiano'n eta Durango'n egin ebazan ankerkeriak ikusita, bildurra ta gorrotoa eutsoezan.

Asieran bake aundia egin eban Aro'ko Kondeak, ainbestc lapur eta gaizkille il ebazalako, baiña bakeagaz batera egoan bildur aundi ori.

Aro'ko kondeak etsaiak eukazan, eta ez makalak. Trebiño'ko kondea etsai oneikaz batu zan Carrion de los Condes (Palentzia)'n. An egozan etsaiak erbesteratuta: Juan Mujika, Pedro Abendaño ta beste batzuk. Guztiak ondo alkartuta etorri ziran Aro'ko kondearen aurka. Bizkaitar asko eta Mungiarrak be bai, Aro' koaren aurka egozan eta onen/etsaiakaz batu ziran.

Egoerea jakin ebanean Aro'koa Burgos'era joan zan eta an aurkitu ebazan laguntzailleak eta, esan dogun lez, arrokeriz eta ankerkeriz sartu zan Bizkai'ra.

Or daukaguz ba, alderdi biak gudarako gertu. ZeJakoak ziran gudarosteak? Aro'koak zaldiak eukazan asko eta onak, Trebiño'koak, ostera. oiñezkoak obeak.

1470n. urteko aprillaren 4n. egunean izan zan gudaldia, Larrauri'ko basoetan eta toki aretan aldapa aundiak eta zugatz asko egozan lez, zaldientzat ez zan guda-leku ona. Orduak egin ebezan gudaketan. Milla oiñezko eta irureun zaldizko il ziran eta batzuren ustez Salinas'ko kondea eta Luis Belasko be bai. Aro'koak ostera bizirik urten eban. Zelan? Bermeo'ko abadea zan Barroeta'k eroan eban zaldi-gaiñean eta Bermeo'tik Asturietara itxas-ontzi baten. Trebiño'koak urten eban nagusi.

Ona emen Aro'ko kondeari atera eutsoen erderazko bertsoa eta kantua:

**ESTA ES VIZCAYA, BTJEN CONDE DE HARO**
**ESTA ES VIZCAYA, QUE NO BELORADO:**

Beste esaldi bat zabaldu zan Burgos'en "Ajos si, pero no los de Mungia"

Ez dau esan nai gure berakatzak txarrak dirala. Gndaldian euskaldunen berbea entzuten eben Burgos'tarrak: A jo! A jo! Esan nai ebena zan nori eraso egin bear eutsoen. Eta "j" ori orduan erderaz be emen lez esaten zan. Ori entzunda ba, eurak A jo! berakatza zala uste eben. Orregaitik esaten eben gero azokan: "Ajos si, pero no los de Mungia"

Or argi agertu da Aro'ko kondea izan zala azpiratua, baiña Bnrgos'en egoan Enrike erregearen izenean etorria zan kondea eta erregea bera be ez zan leku onean geratu. Dana dala. erregea goian dagoan iez, gudaldia galdu eta gero aundikiro etorri zan Bizkai'ra eta bide-aldi luzea egin eban: Zamudio'tik Fika'ra, gero Meñaka'ra. eta gero Sollube'tik Bermeo'ra, eta lurra eskuratzearen ezaugarria egiteko Gaztelugatxe'n amaitu eban osterea.



*Haro sendia.*
Baserriko lana era bitakoa izan da, alde batetik korlako lana eta besletik solokoa. Eta lan bi orreikaz batera zabal ibilli dira gure munduan beste lan batzuk be: Olagizonena burdiñea egin eta lanabesak, erremim tak. edo izkilluak. armak. egiteko. Ola oneik gero Laba Aundiak sortu ziranean errota biurtu ziran. Garia edo artoa errotara eroan. errotariagaz barriketa aldi luzea egin eta egunak geroago etxera uruna ekarten zan ogia edo *taloa* egiteko.

Baserrian gure familiak ekonomi-ikuspegi bereizia eukan: etxerako jatekoa atera, solotjk eta kortatik. eta zerbait saldu, oillaskoak edo txalak edo ortuariak edo aiTautzak erosi bear dana erosteko. esaterako jantziak. azukerea. txokolatea, oiñetakoak eta abar ta baserriko lan orregaz diru apur bat aurreratu be egiten zan eta diru apur ori seme-alaben ezkontzetan eta etxekoen iiletetan eraigi bear izaten zan. Gaiñera gtzarteak engañu aundi bat sartu dautse baserritarrai: Tnflaziñoa. Basem'atarrak uste eban bankuan eukan diru zarrak beti baiio ebala. baiña diruak urterik

urtera baiioa gaidu eta diru zarrak ezerezera etorten ziran. Asieran etxalde bat erosteko beste ba-eukan. ogei bat urte igaro ondoren diru aregaz bei bat erosteko be ez eukan.

Lenengo ardurea zan ba, etxean bear zana etxean lortzea. Orretarako ziran beiak etxerako esnea emoteko, txala zeziña egiteko, oilloak aurrautzak egiteko edo konejuak lantzean jatordu on bat egiteko eta batez be urterako urdaia ta lukainkak emongo ebazan txarria. Zeziña galtzu artean kaxan eta urdaia gazunaskan, urterako janariak ziran eta uruna kaxan taloak egiteko, indabak zakuan lapikorako. Orra or urte guztirako janaririk beiñenak.

Etxean amaren ardurea izaten zan etxekoentzat bizi-poza lortzea eta ze ondo bete daben zeregin ori gure amak!.

Domekea beli izan da atseden-eguna, mezarako eguna. Geienetan gizon eta mutillak goizeko mezara eta andrak eta nmeak beluko mezara. Etxean jaia, maikoa obea, ardaua be bai, taloaren ordez ogia. Mezarako igandeetako soiñekoak jantzi. bidean aunzokoakaz alkartu eta barriketa gozoa erabili, eleizpean erritar askogaz berbetea, eleizan zur eta adi egon, parterik artu barik eta gero barriketa geiago etxera-bide luzean. Meza nagusietan (belnko mezetan) aurretiko illen ai'durea artzen zan argizai-olak, samuak, mezak, ondrak, errespontsoak.

Erriko jaiak ziran beste poz-egun batzuk: Bazkari bereizia. kanpoan bizi ziran senideak etxera, gero, bazkal-ostean soloak ikusteko ibilladitxu bat. Eta agurra, jaiak diranean senideen errietara joateko berbea emonda.

Pozgarriak gabon-jaiak, beti kanpoan dagoan etxekoren bal etorten dala, etxean agurtza edo errosarioa errezau-ondoren, dana da poza. Apari gozoa, albimerea (almibar) gaur konpota deritxona, intxaur-saltsa gozoa, alkar-izketa luzea edo naiago izan ezkero karta-jokoa.

Beste egun batzuk be aiztu-eziñak dira: Gari-jote eguna: Garia guda-ostean batez be artzen zan eta goizean goizetik koñak edo ron edo olako zerbait artuta asten zan eguna. Lenengoetan eskuz joten ziran: Arrilosak, iru edo lau. ipiñi ate-arrean eta batzuk gari-txolak solotik ekarten aupadaka. beste batzuk portalean gari joten izertzan. andrak soloan metatik artu eta txolak kargetan ipinten. Dana arin egiten zan lana. Eta gero bazkari ederra gizadu gorria jateko.

Antzekoa. matsa batu eta txakoliña egiteko eguna, Auzokoen laguntza bear izaten zan, batzeko lenengo ta etxera ekarteko gero. Etxean

matsa tiñakura bota eta oiñutsakaz sakatu egiten jakon zukorik geiena atera arte eta gero cloillarara bota mats-azalak eta eslutu zukoa dana aterateko eta geroago azal utsai ura bota pitipiña egiteko. Amaitzeko beti bazkari eden'a eta girorik ederrenean.

Artoa izaten zan baserriko lanik aundiena, lenengo soloa landu. azatzak egin eta ereiten. gero bedar txarrak kendu eta jorratzen, gero artaburuak batu, zuritu eta artoa igertzeko labasuak egiten. Artajorran egiten genduanean amak solo-munera askaria, meriendea. ekarten eban: samauaren gaiñean lukainkea, ogia, ardaua, eta abar... gaurko pik-nik gure etxeetan antxiñatik egiten zan. Eta labasua egin ondoren artolabakoa eta patata txikiak, gorringoak, laban erreten ziran. Artoa igertu, errotara eroan eta etxera urte guztirako uruna egiteko.

Beste egun pozgarri bat txarria ilten zan eguna zan: Goizean goizetik etorten zan txarria il bear ebana eta guztiak batera koñaka, anisa edo rona edaten eben, Gero txarri-tokitik txarria atera eta il bear ebanak okozpetik gantxoa sartzen eutsan. Irrintzika ta estu eroaten eben txarxi koitadua portalera eta an iltzailleak aurreko anka bien erdiTngurutik biotzera sartzen eutson aiztoa. Amak balde zabala ipinten eban azpian odola artzeko-eta jausiz ezkerretik eskumara biraka irabiatuten eban odola. Ilda egoanean, amak odolagaz buzkantzak egiten ebazan, gero gaidrostu. Bitartean txarri illa irak gaiñean ipiñita erre egiten eben, uleak kentzeko eta ostean aiztoagaz eta uragaz garbitu. Urrengo, barruzkiak atera eta kanalean portalearen sabaitik eskegi. Or asten ziran kinieiak txarriak zenbat pisu euki Ieuken. jokatzeko. Geienetan amabi arroa ingurukoa izaten zan. Gero bazkaria. Txarriaren barruzkiakaz (gibela, biotza, guntzurrunak) gisau ederra egiten eban amak eta bazkari pozgarria. Bazkalostean iltzailleak txarria zatitu egiten eban eta sari lez txarriaren burua artu eta etxera joaten zan. Buzkantzak ordczkoak artzekotan auzoetara eroaten ziran. Egun pozgania eta alkartasunezkoa benetan.

Txarria abenduan illen zan, Andra Maria'ren Sortze Garbiaren jaiinguruan, baiña iilebetc inguru ienago zeziña ilten zan. Txal bat etxcrako larregi zalako. auzo bi edo iru alkartzen ziran eta antzeko ospakizuna egin ondoren urlerako aragia ekarten zan elxera.

Txarrikiakaz egindako lukainkak eta zeziñaren okelea, eskatzeko sabaian eskegiten ziran ondo sikatu arte, kañabera batetik eskegita. Siketzen ziranean aspire baten sartzen ziran pemillak eta zeziñak galtzu artean eukiteko, lukainkak oriotan.

Urclaia barriz, gatza emon eta gazunaskan sartzen zan. Orra-or urte guztirako okelea ta urclaia. Orduan ez zan bear ozkin edo "frigorifiko'nk.

Beste poz-egun batzuk erriko jaiak izaten ziran: Etxeko atarian irea zabaldu, balkatzeko amak janaririk onenak gertatzen ebazan eta besteak meza nagusira. Parroki inguruan. meza ostean, dantzak eta idi-demak eta olakoak ikusi eta ordu biak inguruan elxera, baiña ez joan diranak bakarrik. kanpotik etorritako deituak. konbideduak, etorten ziran eurakaz. osabak eta lengusuak. Bazkari ederra etxean eta guztiak pozik etxekoen arteko jai pozgarrian.

Etxeren bateko gizona ilten ba'zan eta alargunak soloko lanak ezin egin, san'itan totoa prestetan zan eta soloak lantzen edo satsa zabaltzen lan egin ondoren, askari-izki bat egiten zan: makalau errea orio gordiñagaz eta ardaua. Ori zan ordaiña.

Etxe barri bat egiten zanean. teillea botatea amaituta urrengo egunean-edo monjorra edo alborokea egiten zan, langilleak eta lagunak batuta. Egun pozgarria ori be.

Abereak saitzeko eta erosteko ez zan etxera iñor etorten. azokan egiLen ziran. tratu orreik. Gizonak amabostean bein joaten ziran Mungia'ko azoka edo ferira. Baiña ba-egozan beste feri-leku bartzuk be: Basurtu'n illean bitan. txarriak erosteko Arrigorriaga'n edo Tntziñe'n (La EncinaJ Araba'ko Artzeniega'n, idiak erosteko. barriz. turankoak nai ebazana Kantabria'ko Olabeaga'ra joaten zan eta beste batzuk emendik eta oiñez, Gasteiz'era: idiakaz elorlen ziranean Ubidea'n aduanea ordaindu bear izalen zan eta bide zabala itxi Oillerietan eta basotik etorten ziran. Txakur txiki bat idi bakoitxa eta txakur aundia idi biak ordaindu bear izalen eben. eta dirua urri egoan. Baiña lagunak egun pozgarrja igaroten eben bidean eta Gasteiz'en.

Andrak zapatuetan Mungia'ra etorten ziran azokara eta euren ollaskoak arrautzak eta ortu-ariak saldu eta etxerako azukerea. oiñetakoak (neurri lez palutxu bat ekarten zan), jantziak cta olakoak erosten ebezan. Amak ekarten eban tremes gozoari itxaroten zain egoten ziran umeak etxean. baiña eurak egin bear izaten ebezan taloak bazkariteko amaren faltara. Andrentzat egun atsegiña izaten zan, salerosketa pozgarria berez dalako eta erriko beste andra askogaz berba egiteko aukera eukiten ebelako.

Lurra lantzen eta abereak azten ebazanakaz batera Mungia- inguruan ba-egozan olak, erretnentariak, errotak, otsaragiñak eta euleak edo telak egiten ebezanak be. Gure gurasoak ba-ekien liñua kardatzen eta gorue-Lan.

Ori zan Mungia'ko geienen bizikerea basetxeetan, baiña ez aiztu: Ori dana ainbeste guda eta eriotzaren artean egiten zan.

Egokiak ez ziran gauzak gogoratzekotan, garbikuziaren aiazoa aitau bearko geunke. Gure baserrietako, eta antzean kalean be, bizitzea iruga-rren mundukoen aatzekoa zan. Etxean ur barik, garbi-leku barik, boga-dea egiteko lan aundia artuta... Ori on"elan zan orduan beste Jeku batzu-tan be, baiña ez zan gauza neketsua. orretara oituta egozan.



*Txarria. unerako janaria.*

## VIDA RURAL Y GANADERA

Entre guerras y luchas, como lo hcmos descrito, en Ia base de todo estaba la vida rural y ganadera, generalmente idflica y gratificante.

Mungia nunca ha sido amiga de la vida en la calle, ni siquiera se reunieron en nucleo urbano cuando el Señor fundo la villa para rodearla con murallas y asi defendcr mejor a Ia gente. Los labradores de Mungia apenas acudieron a esa cita, prefirieron ser libres en el campo que vivir scguros en la calle.

EI trabajo rural tem'a dos aspectos, el ganadero reservado a varones con algnna colaboracion dc la esposa y el del campo eu el que la madre tenia algo mas de iniciativa. Como complemento estaba el ganado menor (gallinas y conejos).

La economia rural miraba preferentemente al autoabastecimiento, tratando de ahorrar algo para dotes, funerales, fiestas... pero con los ahorros perdian mucho dinero, sin darse cucnta, por la infiacion: Los "dineros viejos" quedaban en nada despues de tanto esfuerzo. Solamente se salvaban las bipotecas que constitufan.

Rccordemos dias alegres de la vida rural qne procuraba con mimo la madre: EI domingo qne se tomaba muy en serio y suponia la salda de casa para ir a misa y poder conversar con vecinos; las fiestas patronales con invitados y buena comida, la trilla, sea a inano o a inaquina mas tardc, simpre con buena comida, las encantadoras fiestas navideñas, la vendimia y fabricacion del txakoli, las hornadas de maiz con patatitas asadas, pimientos, la sailla de maiz con merienda en pik-nik, el dia de la matanza del cerdo y de la ternera para cecina, el trabajo a ;'totoa'\ para ayudar a familias necesitadas que tcrminaba con merienda que consistia en bacalao asado y aceite crudo acompañado de vino, la monjorra o alboroka cuando a una casa nueva se le ponia el tejado, las salidas a mercado que tcnian las mujeres los sabados y los hombres a la feria de ganado en domingo cada 15 dias, o cuando iban a compar cl cerdo a Arrigorriaga o a La Encina en Arceniega de Alava o cuando iban a Vitoria, a pie, a comprar bueyes o, si estos eran turancos, a Olabeaga-Cautabria.

Junto a la labranza y Ia ganaderia habia alguna industria: Ferren'as, molinos, tejerias, tejedores, cesteros, yugueros...

Asi vivfan entrc tantas gnerras y contribucioncs los mungiarras sencillos. Se cchan de menos los servicios higienicos, tanto aqui como en otras partes. Era en este punto una vida parecida a la que hoy existe en el tercer mundo. pero tampoco habia exigencias y eso no los hacia menos fclices.

# XVII.- LURGINTZATIK LANGINTZARA

Lana aidatu-bean'ak beti ekarten dau lamunea eta mungiarrak olako (arriune askojasan bearizan dabez: Antxiña artzaiñak etorten ziran inguru oneitara, baiña ez egoan emen mendigain aundirik eta udan barruti gitxi euken. Gero lurgintza etorri zan eta giro orretan igaro dira ia bi milJa urte, aurreko atalean agertu *dogun* amesezko giroan. Baiña gure mguru au ez da egoldegia lurgintzarako be. Lurra bai lur ona da, eguratsa be geienetan egokia, baiña laun-aldiak dira txikiegiak eta lan-tramankuluak sartzeko ez onak. Eta irabazbide bania Jortzeko antxiñatik sartu ziran ona burdin-olak, bertora Mungia'ra ez geiegi bear ba'da. Or daukagu "OlaJde" lekuko izen Jez. Baiña olak galdu ziran apurka eta euren lekuan errotak sartu, eirotak be gelditu dira eta or dagoz zerbait itxaroten. Azkenengo larri-unea lnrgintza edo nekazaritzari eton'i jako: Gaur lurrak ez dau emoten biziteko bear dan bcste. Egia da negu-soloak eta abeletxe zabalagoak sortu dirana, baiña ez dira sendi gitxi batzuntzat baiño. Orain zer egin?

Orixe da 1950n. urtean edo zerbait lenago mungiarrak egiten eben itauna: Lurrak ez dau emoten bizi izateko beste: Orain zer'?

Erantzuna be agertu zan: Lantegiak bear doguz. Uleroko lan-saria gure soloen eta abereen ondorena baiño geiago da. Eta zergaitik ez gauza biak alkartu?

Zabaldu zan ba, lantegiak etorriko zirala zun'umurua eta lenengo aurkalaria abadea izan zan. Orduan Parroko ta Artxipreste zan Ganboa'tar Santiago'k ez eban nai lantegiak etorterik: Baserriko ekandu onak galdu egingo ziran, kanpotar asko etorri eta erri-nortasuna aldatu egingo zan eta kristiñautasuna bera be galtzeko arriskuan jarriko zan.

Ez zan pentsabide onetakoa Bilbao'ra elorri-barria zan lenengo Gotzaiña, Casimiro Morzijlo. Onek lantegiak etorri-beana ikusten eban eta langille moltzo anndia ta kristiñau izatea Mungia'n alkartzea nai eban.

Zalantza orreik bizi-bizi egozala, Bilbao'tik Mungia'ra egunero, otsaratxuan bazkaria ekarrela, gizon argi bat etorten zan: Artetxe'tar Aurelio. Onek Euskalerria benetan maite eban eta mungialdearen etorkizuna baserria ta lanlegia alkartzean ikusten eban. Lan eta lan bere ola txikia aundiago egilea lortu eban eta asi zan langille geiago artzen, lenengo ta bein baserritarrak. Ortxe asi zan lurgintzatik langintzara bidea.

Laster asi ziran beste lantegi batzuk etorten: Vulcano, Manufacturas Electricas, Olalde, Eguren eta abar. Baita arriskugarri zan bat be etorri jakun: Ferro-Enamel. Onek kutsadura zabaltzen eban soloetara eta gorabera aundiak sortu ziran. Urte batzuk igaro-ondoren Castellon'era aldatu zan eta ara joan ziran ainbat mungiar.

Egin zan ba lurgintzatik langitzara aidatze ori eta alde batetik lantegiko saria eta bestetik ordu askeetan etxean lan eginda lortzen ebana batuta, mungiarrak naikoa ondo bizi ziran giro barri baten. Baiña larrialdi aundi bat etorri zan. "estabilizaziñoa" eritxon larri-aldia Ullastres, Lopez Bravo eta Lopez Rodo ministro ziran aldi aretan. Estualdi batzuk igaro-



*Artetxe Lamegta. Mungialdea nekazaritzatik lcmghuzara igara da. Artetxe lantegiak asko lagimdu datt orretarako.*

ondoren azpiratu zan larrialdia eta gaur lantegiak lan asko ta isilla egiten dabe. Zenbat kamioi aundi ikusten doguzan Kataluña'tik eta Europa-baiTutik etorriak, lan-gaiak ekarten eta ondorenak eroaten, guk zei' dara-billen be geiegijakin barik!

Gaur Mungialdea'n ekonomi-giroa ona da eta onelan jairaitzen ba'dau giro orrek. gure aurretikoak baiño be bizikera obea izango dogu. I965n. Urte inguruan egin zan baserritatren omenez plazan dagoan iru-dia. Oba izango zan laguntza emotea aldaketa egiteko.

## DE LA AGRICULTURA A LA INDUSTRIA

**El pueblo de Mungia en su bistoria ha tenido que cambiar varias veces de trabajo y este cambio suele ser prueba de fuego para los espiritus porque supone cambios en elmodo de vida y costumbres.**

**La ganaderia antigua no tuvo exito, la agricultura daba para mantencr una familia pero no para esta nueva epoca de competividad y de consurno, las ferrerias eran un ingreso adicional pero fueron totalmentc arrumbadas por los Altos Hornos. Se rcciclaron las ferrerias para convertiiias cn molinos y a los pocos años estos no servian.**

**Poco antes de los años cincuenta corria una prcgunta angustiosa: La agricultura no rinde. ^Ahora que hacemos? ^Entrar de peones en fabricas? Habfa algiinas expericncias de muelles y astilleros.**

**Por los años eincueuta ei Parroco-Arciprcste D. Santiago Gamboa era contrario a la industrializacion que suponia aglomcracion, inmigracion y pcrdida del caracter de nuestro pueblo. Sin embargo el Primer Obispo de Bizkaia, Casimiro Morcillo. proycctaba un centro urbano cristiano. Mas de una vez. hemos hablado sobre le Tema por Radio Bilbao por aquellas fechas. Lo sabe Jose Mandaluniz.**

**Mientras cundia la crisis, un hombre inteligentc y habil empresario empezd a venir con su cestita desde Bilbao en el tren. Era Aurelio Artetxe que instalo la primera fabrica y admitio obreros vcnidos del mcdio rural. Tuvo exito. Lucgo vino manufacturas Electricas, Eguren, Olaldc... y mas tarde hasta una fabrica de coches "Gogomovil". Era casi tan poca cosa como Biskuter.**

**Pero cuando fueron nombrados ministros los del Opus Dei, Ullastres. Lopez Bravo y Lopez Rodo se decreto un plan de estabiiizaciou que causo estragos en la industria de Mungia. ;Epoca diiic.il y dura esta!**

Fue posible salir del bache y volvio a florecer la industria de Mungia. Hoy no es quc sepamos mucho de lo que producen nuestras empresas, pero si vemos cnormes camiones que van y vienen de Cataluña, de Europa Central, etc. Gracias a la nueva Carretara de Circunvalacidn, amplia y hermosa, se ha desatascado el caos circulatorio.

Con algunos invernaderos y ganaderias de cultivo intensivo, con la fiibrica y la agricultura unidas en horarios adecuados, la gcnte dc Mnngia vive en una economia bien saneada. Ojala sea para muchos años.

AI atardecer de la agricultura, hacia 1965, se erigio el monumento al labrador que esti en la plaza. Era el tiempo de prestar asesoramiento mas que de erigir monumentos.

# XVIIL- IRAKASKINTZA

Errien edestian garrantzi aundikoa da eziketea edo irakaskintza. Mungia'ri buruz ez daukagu antxiñako barri askorik, baiña al danik ondonen azaldu daigun dana.

Antxiñako urteetan erriak ez eban sentitzen irakaskintzaren bear-izanik eta jauntxoak be naiago eben erri ezjakiña, obeto menperatzeko. Dana dala aurrerapena sartzen joian eta lenengo mutil batzuk asi ziran ikasten, gero neskak be bai, eta azkenean erritar guztiak dakie irakurten eta idazten eta kontuak egiten. Azkenengo urteetan aurrerapen aundia izan da arlo onetan. Ikusi daigun nondik nora.

Uriko ta erriko umeen artean sarritan gorabera aundiak izaten ei ziran gizaldi onen asieran. Gero bien artean ordaintzea erabagi zanetik baretu ziran gauzak.

Lenago, entzun dogunez, Andra Maria ren eleiza-inguruan ipiñi zan igandeetako eskola bak Astegunetan astirik ez-eta, domeketan batzen ziran zerbait ikasteko.

Gure denporetan maisu ospetsuak ezagutu doguz Mungia'n. Irakaskintzan gogorregiak ei ziran, baiña aldian aldiko gauzak. Izendatu daiguzan batzuk: Agustin Fernandez de Gamboa, Isidoro Iturbe eta oraintsu ii dan Ignazio Arenaza. Beste asko be aitatu bear geunkez, baiña izan beite naikoa onein izenak agertzea.

Lenengo maillako irakaskintza naikoa ondo emoten eben maisuak. baiña erdi-maillakoa zan arazoa. Bizkai guztian ez egoan erdi maillako Ikastetxe bat baiño, bera Bilbao'n. Geroago beste bat Barakaldo'n, eta MungiaTik goi-maillako ikastetxera sartu nai ebenak lenengo batxillerra egin bear izaten eberi eta emen ez egoan non ikasirik eta Bilbao'ra egunero joateko ez egoan dirurik.

I955n. urte-inguruan maisuak asi ziran batxillerra irakasten eta lan ederra egin eben zalantza barik, baiña batxiller-irakastaldiak eskolako ordua beteta gero emoten ebezan.

Eleizearen aldetik be izan dauz irakaskintzak laguntzak: Lenengo Lamene'tarrak eta ondoren Konpasionistak eta gaur gurasoen aldetik Bentades ikastetxe ederra. Or Jan aundia egin zan eta egiten da.

Abadeak be zerbait egin-gurean egozan eta lan-ikastegia sindikatoai emon jaken ezkero, ez geunkan non lan-egiñik. Orregaitik bururatu jakun erdimaillako ikastetxe bat sortzea eta gero lenengoa maillakoa be bai. Olan sortu zan San Pedro Ikastetxea. Emen egun osoan irakasten zan lenengo maillea eta batxillerra eta ikastetxea ondo joian. Laster alkate bani batek I.968n. urte inguruan salatu ginduzan eta gure ikastetxeak atzera egin-bearra izan ebau. Urte batzutan jarraitu eban. Azterketak egiteko Bilbao'ra joan bear izaten genduu, salakuntza ori zaila-ta, erdi-maillako Ikastetxearen ordezko edo "filial" bat ipintea ukatu euskuelako.

Lan Ikastegia be Pairokiaren ardurapean asi zan, baiña egun baten emengo txanburu zanak, iñori ezer esan barik, ikastegi ori sindikatoai emon eutsen eta Andra Mari ondoan, gaur osakidetza dagon Iekuan, egin eban bere lana.

Aspaldion gauzak asko aldatu dira: Mungia'k gaur eskola egokiak daukaz, Andra Mari lan-ikastegiak be jarraitzen dau bere buruaren jabe eta LauaxetaTen izena daroan Erdi-Maillako Ikastegi eder bat daukagu. Gure gazterik geienak bideak zabalik daukez Ikastetxe Nagusira sartzeko eta sartu be egiten dira.

Atal onen txuntxur lez, aztertu daigun IkastoJearen arazoa.

Zori txan-eko erria izan gara gu. Sendi euskaldun baten jaio ta azi eta sei-zazpi urtekoak giñala eskolara joan giñanean, guk erdera tutik be jakin barik. irakasleak erdera utsa egiten euskuen. Eta gero erdi-maillako ta goi-maillako ikasketak erdera utsez egin doguz. Au ez ba'da erri bat iitzea, zer ete daJ

Giro orretan bizi giñan I960n. urte ingurura arte. baiña aldi orretan asi ziran ikastolak agertzen. Ikastolak umeai dana euskeraz irakasteko ikastegiak ziran eta dira. Mungia n be agertu zan ikastolea sortzeko gnraria eta guraso-talde'on batek egin eban eskaria. Lenengo Andra Mari kalean asi ziran legezko baimen aundi barik. gero eieizearcn laguntzaz ikastolea legetu egin zan, gero, San Pedro Ikastegia kendu euskuenean onen gela guztiak artu ebezan. Ikastolea guztiz onartua, izan zan eta las-

ter gela oneik be gitxi ziralako ikastola barria. benetan ederra, egin eben Belako'n eta antxe jarraitzen dau ikastoleak. zorionez. Orj bai ba-dala Euskalerria euskaldunduteko bide egokia. Alegin ori egin eta elburu ori lortuko daJa uste dogu, gure ikasleentzat eragozpen aundiak aurrean agertu arren.

Gero Tkastetxe nagusian be jarraitu leikez ikasketak euskeraz eta bide orretatik asko lortuko da. Gure sendietan. gurasoak eta umeak euskera egiten ba'dabe. "Mungia Euskalduntzen" taldeak nai dauan lez erriko artu-emonak euskeraz izan daitezan alegintzen ba gara, galdu dogun euskaltasuna barriro eskuratuko dogu. Ba-dago itxaropena!



*Ltjirameiuli ikastolea gure ettskeraren itxarapena, (Ikasleak Agaie Oettna'ri abcsten).*

## ENSENANZA

Ultimamente los pueblos se ban dado cuenta de la enorme importancia de la enseñanza y ia educacion para el desarrollo cn todos los niveles. Sobre esta materia poco sabemos del antiguo pueblo, pero demos algunos datos.

Hasta el siglo XVIII, la mayor parte del pueblo eran analfabetos y no sentian necesidad dc aprender. Solamente los que eran "nobles" sentian esta necesidad y hasta preferian que el pueblo no saliese de ese agujero, para poderlo dominar mejor.

Hubo una escuela domincal en Santa Maria, pero poco podemos decir de ella. Iban los domingos los que veian esta necesidad de saber leer y escribtr y algo de cuentas.

Hace cien años babia dificultades de mutuo entendimiento entre niños de la Villa y los de la Anteiglesia y tampoco estaba clara la forma de financiar los maestros.

En nnestros tiempos hemos conocido en Mungia buenos maestros, quiza mas o menos duros, pero cnseñaban. Por citar algunos recordemos a D. Agustin Fernandez de Gamboa, D. Isidoro Iturbe, D. Ignacio Arenaza que murid hace pocos años, casi centenario.

La Primaria estaha bastante bien atendida, pero la mcdia era un gravfsimo problema. Tambicn la Profesional. Una escuela parroquial profesional "Santa Maria", por decision del parroco, pasd a sindicatos. Los maestros tambien trataron de sotucionar este problema o Hcnar este bache con clases de hachiller despues de las horas escolares, pero no era muy buena soiucidn.

Para chicos primero con los hermanos de Lamenais y para chicas despucs con las Hermanas Compasionistas contribuyo la Iglesia en esta labor. De ahi salio luego el Colegio de Ventades que hoy existc y funciona como cooperativa de padres, antes era "Fundacion Ventades"

Tambien los sacerdotes quisieron suuiarse a esta labor social y, tcniendo en cuenta que la Escuela Parroquial de Formacion Profesional Santa Maria hahia sido donada por cl Parroco a sindicados, decidieron crear un centro de Primera y Segunda Enseñanza. Era el Colegio San Pedro que comenzo con Eñseñanza de Bachillcr, luego se implanto la Primaria, Uegando a tener mas de 200 alumnos con servicio de autobuses a todos los pueblos y barrios de la zona. La enseñanza era bucna y los examenes de cursos de bachiller en Bilbao daban muy buenos resfultados. Pero debio de ser bacia el año 1968 cuando el Alcaldc denuncio al centro coino nacionalista y desde entonces, paso a paso, intentaron y lograron cerrar el centro.

Pasaron asi los años basta la llegada de la democracia a apartir del año 1975. Por entonces einpezo la liltima etapa de la Enseñanza, organizandose

tanto la Primaria como la Media y creandose el nuevo y hermoso Instituto Lauaxeta que hoy trabaja en Mungia abriendo asi el camino a todos los hijos e hijas dcl Mungia y su entorno para acceder a la Universidad.

Dediquemos brevemente estas ultimas lineas del capitulo a la Ikastola.

Fue idea de los padres que colaborando con la parroquia crearon este centro, modesto al principio, creciente desde que entraron a los locales que dejd vacios el Centro San Pedro y exifoso en la herinosa ikastola construida en el barrio Belako, que hoy fuuciona eon regularidad. Por fin es realidad el sueño de todo euskaldun que quiere ser instruido y educado en su lengua desde la primeras letras hasta el titulo Universitario. Sera, sin duda, uno de los eimientos nias solidos para que nuestra lengua siga viviendo, EIIo requerira el esf'uerzo de todos, especialmente de la familias, y el empuje del grupo recien creado "Mungia euskalduntz.cn".

# XIX.- ERRIKO ERAKUNDEAK

Orain urte batzuk dirala gure udalak goitik bera erabilliak ziran eta goitik bera ezarten ebezan alkateak eta ziñegotziak. Jokabide orren aurka gogor jokatu zan eta erriak, berak aukeratutako Udal-Batzak eskatzen ebazan. Eta lortu be egin zan ori 1936'ko gudan irabazle urten zan agintari bakartia il zanean. Orain alderdi politikuak eratu dira eta euren bidez erriak berak aukeratzen dauz agintariak. Orrelan ete zan antxiñako Mungia'n?

Ez doLdoi orrelan baiña antzera: Lenago erriko fogeradunak (subetea eukenak) batzen ziran eleizpean eta autarkiz aukeratzen eben alkatea. Gero alkateak batzen ziran Gernikan erabagiak artzeko. Anlxe eukan gure erriak 59n. jesarlekuan beronen berbea eta gure uriak bardin 15n. jesarlekuan eta antxe aukeratzen eben Aldundia batzarren artean jaurtza egiteko. Ez egoan goragoko maillan agintaririk. ez parlamenturik ez Kongreso'rik. Asikera baten autarkidunak etxearen jabe ziranak (fogeradunak) ziran. baiña geroago etxeko buru ziranak guztiak. Erakunde polita zan ori, baiña gaur ez da onartzen, Gaur alderdi polilikuak dira Udal-Batza osotzen dabenak: EAJ/PNV, EA. PSOE, PP.EB eta abar. Alderdi politiku oneik euren zabalkundea egiten dabe. auteskundea egiten da eta geienok nai dogun Udal-Batza ta alkatea eukiten doguz. Ori lortu da eta pozgania da.

Baiña antxiña erakunde bat egoan Eleiz-Ate edo eniaren eta etxcko jaunen artean, kofradiak. Gaur baseleizak dagozen lekuetan, auzoetan egozan kofradiak eta. sarrilan an aukeralzen eben ordezko bat orrelan eleiz-aurrean egiten zan aukeratzea errezagoa izateko. Arazo onen billaketa ondo egin barik dauke kondaira-zaleak. eta egin bearrekoa da. Ela ortik zerbait ikasi bear da: Udal batzarren eta crritarrcn bitartean beste erakunde batzuk bear dira, erriak bizkar-azur bat bear dau cta bizkar onen azurrak lez litzakez sendia ta auzoa. Auzoai indarra emon bear jake eta toki batzutan, esaterako Bermeo'n. emoten jake, auzo-alkateak

clagoz. Olako zerbait bear dau Mungia'k eta ez litzake gaitxa auzoetan ori lortzea, auzo batsutan olako zerbait orain be ba-dago. Baiña Mungia'k geroago eta erritar geiago daukaz kaleetan, eta kaleetan alkartze au aurrera joango daia dirudi. Asmamena bearko da kaleetan be-erakunde orreik eratzeko.

Baiña lurraldezkoa dan erakunde orren utsa beteteko beste bide batzuk dagoz: Bearizan bakoitxerako talde bat sortu erri-barruan, esaterako dantza-taldea, abes-batza, euskera taldea, pelota taldea, futbol-taldea, mendigoizale-taldea. buztinlari-laldea, eres-batza (banda musical), txistulari-taldea, eta abai'. Olako taldeak ez dira sartzen agintaritzara, baiña eiriko bear-izan bat beteten dabe eta Udal-Batzak diru-laguntza emoten dautse.

Aztertu daigun talde onein edestia. Udal-Batza goitik bera eginda emoten zanean, ez zan gauza erreza olako taldeak edo erakundeak sortzea, bide luze bat izaten zan asi eskariagaz eta bear ziran papel guztiak betetekoa eta azkenean ezetza emoten eben, batez be nai eben personea ez zalako eskatzen ebana.

Baiña bear-izanak or egozan eta urtenbide bat bear zan. Eta baegoan urtebidea: Eleizea. Eleizeak orduan eskubide batzuk geiago eukazan erriak baiño eta eskubide bat auxe zan: Eleiz-taldeak sortzekoa. Orregaitik. olako taldeak, erri-taldeak gaur diranak, orduan eleiz-taldeak ziran. Orra or zergaitik ainbeste talde sortu ebazan parrokian abade izan zan Arregi'tar Jose Mari'k. Berau zan Katoliku-Ekintzaren arduraduna eta beronegana joaten ziran orduko gazteak babes-billa euren taldeak eratzeko eta beronek onartu eta bultzatu egiten ebazan aitzen zjtuan eskariak eta azkenean bera da sortzaille. Ona emen talde batzuk: Abes-batza, zarsaridunen DANONTZAT taldea, peiotarien DANONA taldea, COCORDIA parrokiko orri barriemoillea, sukalki-eguna. sendien taldea. Paulin Solozabal abadeak bere aldetik txistulari-taldea sortu eban eta euskerea irakasten be alegin aundia egiten eban. Orduan erriak egin-bearreko ainbat gauza egiten ebazan Eleizeak, gaur ostera Eleizeak orrelan zeregin gitxiago dauka Udal-Batzak bere erantzukizuna ondo beteten daualako. Dana dala. gaur be ba-dagoz betera egin bear diran eta egiten diran lanak: Irakaskintzan, beartsuen Iaguntzan. Zatren Egoitzean. Emen laguntzaille onak dira aolku Oneko Amaren Lekaime Franziskotairak.

Atal au amaitzeko, Jabur-labur esango dogu dana: Udal-Batzak erritairen Jaguntza bear dau eta orretarako erriaren eta Udal-batzaren bitartean erakundeak gertatu bear dira,




*Jose Mitrkt Arre^tti. (Abadea).*

## ESTRUCTURAS DEL PUEBLO

Terrninado ya en el gobierno rnunicipal el verticalismo de la dictadura, se ha Iogrado que los ayuntamientos sean elegidos por el pueblo. Antes era la anteiglesia (o la villa) que escogia su alcalde, ahora se hace por voto personal y rnediando los partidos polificos.

Pero en la forma antigua de gobierno municipal habia una mediacion, que esta poco investigada pero era real, las cofradi'as. Cada barrio tenia su cofradia con sus bienes y su iglesia y alli proponia su representante y sus reivindicaciones y asr' se facilitaba la reunion en el portico del pueblo.

Esto quiere decir que el antiguo pueblo estaba vertebrado, entre la Anteiglesia y la persona estaban Ia familia y el barrio que tenran su influencia.

Tambien hoy seria una buena ayuda para el ayuntamiento el contar con estos alcaldes de barrio elegidos. Algo de esto existe en Bernreo. Asr la presencia de la autoridad ante los ciudadanos serr'a nras efrciente. El pueblo estan'a mas vertebrado.

No se olvide que el casco urbano crece cada vez mas y esta organizacion tendria qu(^Ilevarse a cabo en las calles. con un poco de rmaginacion.

A falta de esta organizacion casi territorial, se ha acudklo a otro sistema para acndir a las necesidades del pueblo, creando para cada necesidad un grupo de personas con snbvencion del ayuntamiento. Asr' existen grupos para bailes, para canto, para fomento del euskera , para pelota, para ciclismo, para alpinismo, para ceramica, para txistn, etc.

Pero miremos un poco a la historia reciente de estos grupos. En tiempo de la dictadura era una carrera de obstaculos crear un grupo de estos. Largos tramites que al fin terniinaban en negativa porque el responsable no era del agra-

do de los mandamases. Tambien este problema tuvo una salida. Aeudir a la Iglesia que tenia algunos privilegios y podia organizar estas eosas dentro del movimiento de la Accion Catolica. Asi se explica que tantos acudieran al saeer-dote Jose Maria Arregi, responsable en la parroquia de la Accion Catolica para crear grupos. El aeeptaba a todos y les daba "la chapa" para que conti-nuaran reuniendose. Asi surgieron el Orfeon, el Club de jubilados DANONTZAT, el grupo de Pelota DANONA, la revista parroquial COCORDLA, el Coneurso de Guisado, el grupo de familias, ete. Paulino Solo-zabal por su parte comenzo con el grupo de Txistu, enseñanza de la musica y del euskera, todo ello bajo la vigilancia de la Guardia Civil que andaba eerca y a veees acosaba y perseguia. Alguna vez se oyo esta voz del Alcalde a los Guardias: "Si haee falta, disparen, que yo respondo".

Kn aquellas fechas muehas de las atenciones que son responsabilidad del municipio quedaban en *manos* de la Iglesja. Pero *aun* hoy hay *cosas en que se* colabora, como Caritas y Asistencia soeial, Enseñanza en el Colegio Ventades, antiguo asflo que esta construyendo ahora mismo una hermosa residencia para ancianos, colaborando en ello eon cariño y desinteres las religiosas Francisea-uas del buen eonsejo.

Digamos para tertninar este capitulo que el ayuntamiento necesita de cola-boracion ciudadana y para ello es preeiso vertebrar el pueblo.



*Yxuren El.\eko iraspen edo fimdciziñoak oraintxe diardu egoitz barria egiien. Irttdian leitengo arria iptntea. Iraspen oneit bttrit Alkotea da eta parrokoa Lendakari-orde.*

# XX.- ETORK*I*ZUNA

Eldu gara azkenengo atalera. Gure edesti edo istoria au bizitzarako irakasle izatea gura dogu. Orregatik azkenengo azterketa labur au.

Edestian ikusi dogu guda asko izan dirala eta 1936n. urtekoa guztietan negargarriena. Ikusi dogu guda orreik samintasuna ta negarra ekarten ebezan artean, be-maillan/Mungia'ko sendiak bakean eta pozik bizi zirala, gure ingurua Arkadia zoriontsu baten antzekoa izan dala. Ikusi dogu urteen joanean izandan aurrerapen zoragama, bideak, telefonoak. lana eta abar. Eta lana gizaldien joanean aldatu egin bear izan dogu: artzainlza, nekasaritza, burdinlana, lantegiak. Agiri da. baiña, erri-burtia. Mungia'ren kaskua, geroago ta aundiagoa dogula, baserritik oraindiño be jentea kalera dalorrela. Baita Bilbao uria uiTeratu egin jakula, eta ori dana ta geiago ikusita au da itauna: Geroan zer izango da Mungia? Bilbao'tarvçn lo-lekua?

Erri aundi bat izango gara. eta laster izan be. Gaiñera datorku Bilbao'ren zabalkundea eta albo-errien jokabidea. Eta uri-burua geroago ta aundiagoa izango dan artean. alboetan etxeederrak, txaletak, ugaritu egingo dira. Jokabide ori asita dago. ez Bilbaina'na bakarrik. erri txikietako urigintza-lanetan be bai. Aunditasun orrek gure **eiTi**-izakerea ondatu egingo ete dau? Badago orretarako arriskua. Alegindu gaitezan '"geu"' izaten.

Errian etxegintza asko ugarituko da eta Udal-Batzak ondo begiratu bearko dautso arlo oneri. Landetxo'n egin dan urigintza nasaia, berebiltokiak azpian barik alboan dirala, bide zabalak eta orlegimneak ugari dirala. etxeen goierea Iaburra dala. ..orrelan jokatu bear da etorkizunean erri garbia ta lasaia euki dagigun. Guk gaurko lurralde zabala daukagu. ez dagiguzan etxeak ia alkarren gaiñean egin, zabal eta nasai baiño. Orrek diru-galtzea dakav baiña gerovako bizikera egokia be bai.

Mungia'ko jentea geroago'ta obeto biziko da. Ori itxaroten dogu eta gura dogu, baiña larrialdiak (krisisak) be etorriko dira.

Eta ain kalte ikaragarriak eta ainbeste negar ekarri dauskuen gudak? Zer? Amaitu dira ala jarraituko dabe?

Ez al da geiago gudarik etorriko gure artera! Baiña mendigaiñeetan tximistak agiri dira. Euskalerria ez da aintzat artzen, goiko agintariak ez dabez ikusten Iparraldeko ta Egoalde'ko luarraldeak erri bat lez. Ori onartu baiño naiago dabela guda dirudi. Eta guk ez daukagu bakerik erria onartzen ez dan artean. Ez daigun itxaropena galdu, elduko da Euskalerri alkartua bere lurraldean bakean biziko dan aidia. Ori lortu ezkero amaituko litzakez ETA'ren ilketa mingarriak eta Euskalerria zoriontsu biziko litzake Europa zoriontsuan. Elduko gara egun zoragarri orretara.

Mungia, guda eta agintaritza gogorren artean, be-maillan Arkadia zoriontsua izan dala esan dogu, edo beste era batera esanda, atsegin-baralz bat, paraisu bat izan dala. Baiña ez aiztu baratzaren edo paraisuaren baztciren baten beti agertzen dala sugeren bat.



*Teh/io Zfirra auzoa. Landeivo-iiigttnum. Vnginiza egokia. Goiera gii.xi. Berebii-iokiak alboan. Bide egokiak. Laxaiiasitna.*

## MIRANDO AL FUTURO

Hcmos Ilegado a este liltimo capitulo de esta especie de historia de Mungia. Antes de terminar, permitasenos una breve reflexion mirando al futuro.

Hemos visto en la historia muchas guerras y ninguna tan crucl para nuestro pueblo como la de 1936. Pero tambien hemos observado que el puehlo en la base ha sido una Arcadia feliz, un paraiso. Hemos progreasado mucho, hemos tenido que cambiar de trabajo, de la ganaderia a la agricultura, del hierro a los molinos, del campo a la fabrica y hemos visto ciecer cl casco urbano del pueblo. Ahora nos preguntamos: y j,cual scra nuestro futuro? ;,dormitorio de Bilbao?.

No cabe duda de que Mungia esta llamada a ser un gran pueblo y muy pronto. Bilbao se difunde, de los pueblos cercanos nos viene gente, pero mien-Iras el casco urbano ira creciendo aumentara un fenomeno ya iniciado: Las colinas cercanas se llenaran de Chalets. Fs el fenomeno de "La Bilbaina" de Laukariz, pero de otro modo, mas individual que colectivo. Y este creeimiento, urbano y semiurbano, podra ser peligroso para que perdamos cn caracter del pucblo. Por eso debemos cuidar con esmero todos las señas de identidad del pueblo.

Aumentara la construccion en años proximos y el ayuntamiento debera salvar la vida sin aglomeraciones, procurando zonas bien urbanizadas como la de Landetxo con zonas verdes, amplias calles o carreteras, garajes sin acudir a sotanos... Todo ello supondra mas inversion pero garantizara el futuro de bienestar en una zona en que hoy por hoy abunda en terreno edificable.

^Habra paz en el futuro? Las ciscunstancias actuales no ofrecen muchas garantias. Para que el Pueblo Vasco tenga paz debe comenzarse por ser reconocido como pueblo con sus seis o siete territorios y deberan reconocerse sus derechos como pueblo y rnientras no se Ilegue a este reconocimiento, la paz no sera posible. No perdamos la esperanza de vivir como queremos dentro de una Europa unida y pacificada,

Si entre guerras y bajo la dictadura, la base del pueblo ha sido una Arcadia feliz, un paraiso. sin dnda asi seguira siendo, pero no olvidemos que en algun rincon del paraiso siempre aparece una scrpiente.

Munguia 2000-08-09

# AURKIBIDEA / INDICE


AURKEZPENA / PRESENTACION .......... 5

I.- LUR -AZALAREN EDESTIA / HISTORIA GEOLOGICA .......... 7

II.- LEIZETAKO GIZONA/EL HOMBRE DE LAS CUEVAS .......... 11

UI.- ARTZAIÑEN ALDTA / EPOCA DE LOS PASTORES .......... 14

IV.- NEKAZARITZA TA BURDIN-AROA .......... 17

V- BILLELA SENDIA / LA CASA DE LOS VILLELA .......... 21

VI.- AIDE NAGUSIAK / LOS PARIENTES MAYORES .......... 27

VII,- MUNGIA'KO GUDALDIA / LA BATALLA DE MUNGIA .......... 31

VIII.- ERRIA ETA URIA / EL PUEBLO Y LA VILLA .......... 34

IX.- ELEIZAK MUNGIAN / TEMPLOS DE MUNGIA .......... 38

X.- LTBERALAK, KARLISTAK ETA ABERTZALEAK
LIBERALES. CARLTSTAS Y NACIONALISTAS .......... 49

XL- 1936'KO GUDA TA ONDORENAK / GUERRA DE 1936 Y
SUS CONSECUENCIAS .......... *53*

XII.- GUDA-OSTEKO GIROA / LA POSTGUERRA .......... 61

XIII.- ERRI-AGINTARITZA / DE NUEVO LA DEMOCRACIA .......... *66*

XIV- BIDEAK, ITURRIAK, ZUBIAK ETA ETXEAK / CAMINOS,
FUENTES, PUENTES Y EDIFICIOS .......... 70

XV- MUNGIAR OSPETSUAK / HIJOS ILUSTRES .......... 77

XVI..- BASERRI-LANA EDO NEKASARITZA / VJDA RURAL Y
GANADERA .......... 87

XVII.- LURGINTZATIK LANGINTZARA / DE LA AGRICULTURA A
LA INDUSTRIA .......... 93

XVIII.- IRAKASKINTZA / ENSEÑANZA .......... 97

XIX.- ERRTKO ERAKUNDEAK / ESTRUCTURAS DEL PUEBLO .... 102

XX.- ETORKJZUNA / MIRANDO AL FUTURO .......... 106

## IRUDIAK / ILUSTRACIONES

1,- Azala: Tribika ba.serriko ikurdja / Escudo de la Casa dc Machin-Trobika,
2- Lur-azalak / Estratos..........................................................................
3- Leizetako marrazkiak / Pintura rupestre.................................................
4 - Bizkaia'n dolmenak diran lekuak / Localizacion de dolmencs................
5- Ola-gi7onak / Lo ferreros........................................................................
6.- Billela Torre-etxea / Casa-Tone Villela..................................................
7,- Butron Torre-etxea / Casa-Torre Butron.................................................
8.- Erdi-Aroko zalduna / Jinete medieval {Diego Lopez de Haro)................
9.- "Biona" iturria / Fuenle foral "Biona".....................................................
10 - Andra Mari eleizea len / I«lesia derribada de Santa Maria....................
11 - Mungia'ko Andra Mari / Santa Maria dc Mungia................................
12 - Karlistet) II gudako bakearen maia / Mesa de la paz II guerra caiiista ...
13 - Luis Agirre Bilbao anai beneragarria / Venerable H° Luis Agirre Bilbao
14 - Lauzurika Gotzaifia / Mons. Lauzurika................................................
15 - Ratael Zabala Gorriño.........................................................................
15 bis- Torrontegi'tar Jose Antonio Alkatea..............................................
16 - Sabino Aratia........................................................................................
17 - Albo bidea / Carrctera de cincunvalacion..............................................
18 - Latiaxeta.................................................................................................
19 - Anupe'tar Pedro aita / Padre Petlro Arrupe.........................................
20 - Landeixo Goikoa....................................................................................
21 - Solozabal'dar Paulin Olerkaria omendua..............................................
22 - Urterako txania / Cerdo de atitoabastecimiento anual en casa..............
23 Arietxe Laniegia / Fabrica Artetxe........................................................
24 Ikastola Lanamendi....................................................................................
25 Jose Maria AiTegi.....................................................................................
26 Telmo Zaira Auzoa / Urbanizacion Telmo Zarra...................................

**IDAZLEAREN IDAZ-LANAK**
**OBRAS DEL MLSMO AUTOR**

IMungialde, Bermeo, ta Ondarru ko euskal abostegia (Argitaiatu barik)
La fonetica vasca cn la zona de Mungia, Bermeo y Ondarroa (Inedita).
2 - Len, orain eta beti (elebarria, argitaratu barik).
3.- Iruarrizaga'tar Luis ailaren bizitza / Vida dej Mtisico P. Luis de Iruarrizaga
4 - Nazarei eko Jesus.
5.- Erri bat bidean
6 - Gu, gure mundua ta gttre fedea.
7,- Zu Martfn (Gomutakiak)
Oye, Marli'n (Memorias)
8.- Mungia ta mungiarrak
Mungia, su ticrra y sus hombres.
itzulpenak: Bermeo ta Zeanuri'ko udal-etxeetan.
Bilbao'ko Gotzaindegian 1985-1995
Traducciones: En los Ayuntatnientos de Zeanuri y Bermeo.
El Obispado de Bilbao de 1985 a 1995
[daz-Ianak aldizkarionetan:
Pen^amiento Alaves. Deia. Possunuts. Yunque. Pancarta. Eco
Misional. Surge. Alkartasuna
Concordia, Goiz-Argi, Agtir. Zer, Kardaberaz. Bermco. Aran
(Arratia) Saski Naski, Euskeiazainiza. Izen-ordea. saniian "Ganriz'" izaten da.
Inoz "Landabarri"be bai. Atarikoak izenpetu barjk.
He escrito articuJos en Jas revistas arriba citadas con frecueneia con el seudonimo "Gamiz" y a veces '"Landabarri". Ediioriales sin firma.